 - b) Administrazioaren baimena duenean EAeko GKEen Erregistroan jaso eta aintzatesitako gobernuz kanpoko erakundeetako batean sei hilabetetik gorako denboraldian nazioarteko edo nazioz gaindiko eginkizunak betetzeko.
 - c) Foru-diputazioetan eta toki-korporazioetan hautatutako kargua izan, eta kargu hori ordaindua eta dedikazio osokoa denean.
 - d) Gorte Nagusiek aukeratzen dutenean Konstituzio-erakundeetako edo ganberek hautatu beharreko organoetako kide izateko.
144. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, kontzeptu hauetatik zein ez da lansari osagarri bat?**
- a) Lanpostu-mailako osagarria.
 - b) Produktibitate-osagarria.
 - c) Berariazko osagarria.
 - d) Ordainsari bereziak.
145. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, zer-nolako hutsegitea da bateraezintasunari buruzko arauak ez betetzea?**
- a) Falta oso larria.
 - b) Falta oso arina.
 - c) Falta larria.
 - b) Falta arina.
146. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, zer-nolako falta da lantegietan iskanbilaren bat sortzea edo hartan parte hartzea?**
- a) Falta larria.
 - b) Falta oso arina.
 - c) Falta oso larria.
 - b) Falta arina.
147. **Hizkuntza-eskakizunak betetzen direla akreditatzeko, zer erakundek erabakiko ditu kasu bakoitzean behar den euskara-maila ebaluatzeko proben edukia eta forma?**
- a) Euskerazaintzak.
 - b) Euskaltzaindiak.
 - c) Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak.
 - d) Euskara Batzorde Nagusiak.

148. **Hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duen lanpostu batera sartzeko:**

- a) Hautatutako hautagaiak urtebeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
- b) Hautatutako hautagaiak sei hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
- c) Eskakizuna bete beharrekoa izango da lanpostura sartzeko.
- d) Hautatutako hautagaiak hiru hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.

149. **Zer unibertsitatek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema?**

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate publikoek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
- c) Euskal Unibertsitate Sistema hauek osatzen dute: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Makina Erremintaren Institutua eta Zamudioko Unibertsitate Ikerketako Zentroa.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek eta egoitza Nafarroako Foru Erkidegoan izanik atxikitze-eskaera onartzen zaien unibertsitateek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema, 2004ko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen laugarren xedapen iragankorrean zehaztutakoaren arabera.

150. **UPV/EHUko ikasketa-planak egitea:**

- a) Unibertsitate bakoitzeko klaustroaren egitekoa da.
- b) Unibertsitate publikoaren kasuan, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziaren txostena ez da beharrezkoa izango.
- c) Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziaren txostena beharko da beti.
- d) Behin betiko onartzeko, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren oniritzia behar da.

151. **Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate publikoak sortu eta ezabatzea:**

- a) Eusko Legebiltzarrari dagokio, unibertsitatearen jardun-eremua EAEko hiru lurralde historikoak badira.
- b) Unibertsitatearen jardun-eremua lurralde historiko bakar bat baldin bada, lurralde horretako Batzar Nagusiei dagokie.
- c) Eusko Legebiltzarrari ez beste inori dagokio.
- d) Unibertsitate-hezkuntzako gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokio.

152. **Unibertsitate-planak:**

- a) Lau urteko iraupena du.
- b) Bost urteko plan bat da.
- c) Hiru urteko plan bat da.
- d) Hezkuntza Sailak ezartzen du haren iraupena.

153. **Erakunde hauetatik zein ez dago jasota Euskal Unibertsitate Sistemaren Legean?**
- a) Euskadiko Unibertsitate Kontseilua.
 - b) Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua.
 - c) Gizarte Kontseilua.
 - d) EAEko Errektoreen Batzarra.
154. **Unibertsitate publikoaren aurrekontuetan, programa-kontratuak:**
- a) Unibertsitateak ez du lege-baimenik programa-kontratuak sinatzeko; unibertsitate publikoek bakarrik.
 - b) Oinarrizko ekarpen bat dira.
 - c) Ekarpen subsidiario bat dira.
 - d) Baldintzapeko finantzaketa-era bat dira.
155. **Euskal unibertsitate sistemako unibertsitate ez-publiko batek fakultate berri bat sortu nahi badu:**
- a) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren baimena behar du.
 - b) Unibertsitateen gaitan eskumenak dituen sailaren baimena behar du.
 - c) Eusko Legebiltzarraren baimena behar du.
 - d) Fakultate berria kokatuko den lurralde historikoko Batzar Nagusien baimena behar du.
156. **UPV/EHU**
- a) Foru-zuzenbideko erakunde bat da.
 - b) Zuzenbide publiko erkideko erakunde bat da.
 - c) Zuzenbide publikoko erakunde bat da.
 - d) Zuzenbide pribatuko eta finantzaketa publikoko erakunde bat da.
157. **Zeini dagokio zehaztea UPV/EHU-ko irakasleen eta ikertzaileen zerbitzu-eginkizun, lizentzia, baimen eta eszedentzia guztiak emateko araubidea?**
- a) Unibertsitateko Klaustroari.
 - b) Gerentearen, Enpresa Batzordearen eta Langileen Batzarraren akordio bidez zehazten da.
 - c) Gobernu Kontseiluari, kontuan hartuta UPV/EHUko Irakasleen Batzordearen iritzia.
 - d) Gobernu Kontseiluari, Gerenteak proposatuta.
158. **Administrazio eta zerbitzuetako langileak hartzeko UPV/EHUren lan-eskaintzan jasotako plaza hutsak betetzeko egingo diren hautatze-probetako deialdia:**
- a) Unibertsitate-gaitan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.
 - b) Gobernu Batzarrak onartuko du, kontuan hartuta errektorearen proposamena.
 - c) Gobernu Kontseiluak onartuko du, kontuan hartuta errektorearen proposamena.
 - d) Enplegu publikoko gaitan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.

159. **Hauetako zein ez da UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari-ritza-organo bat?**
- a) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra.
 - b) Enpresa Batzordea.
 - c) Ikastegietako batzarrak.
 - d) Atal sindikalak.
160. **Nork aukeratuko du aldezlea?**
- a) Gobernu Kontseiluak gehiengo osoz, 5 urterako.
 - b) Klaustroak, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Klaustroan daudenen gehiengo osoz, 5 urterako.
 - c) Klaustroak, errektoreak proposatuta, 5 urterako.
 - d) Klaustroak, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Klaustroan daudenen bi herenen gehiengoarekin, 5 urterako.
161. **Euskal unibertsitate-sistemaren unibertsitate-ikastegiak sortu, aldatu edo kentzea:**
- a) Unibertsitateko Klaustroari dagokio, Gobernu Kontseiluak proposatuta.
 - b) Gobernu Kontseiluari dagokio.
 - c) Unibertsitate-gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.
 - d) Gobernu Kontseiluari eta ikastegia dagoen edo egongo den Campuseko Batzarrari dagokie.
162. **Zein da UPV/EHUko kontratazio-organoa?**
- a) Kontratazio eta Plangintza Batzordea.
 - b) Errektorea, ahalmen hori eskuordetu badezake ere.
 - c) Gerentzia.
 - d) Campuseko gerentziordetzak, campus anitzeko unibertsitate bat baita.
163. **Zeinek onartzen du behin betiko UPV/EHUko aurrekontua?**
- a) Gobernu Kontseiluak.
 - b) Kudeaketa Klaustroak, zeina urtero egiten baita.
 - c) Gizarte Kontseiluak.
 - d) Klaustroak.
164. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, euskal autonomia erkidegoko instituzio komunek zuzeneko ekintzak abiaraz baditzakete ere, honi dagokio emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak betearaztea:**
- a) Estatuaren Administrazio Orokorrari.
 - b) Autonomia-erkidegoko instituzioei.
 - c) Lurralde historikoetako tokiko organoei eta foru-administrazioari.
 - d) Lurralde historikoetako foru-organoei eta tokiko administrazioari.

165. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, berdintasunaren arloko zer neurri diseinatu eta egikaritzea dagokie instituzio komunei?**
- a) Diskriminazio positiborik gabekoak.
 - b) Ekintza positibokoak.
 - c) Ekintza publikokoak.
 - d) Diskriminazio positibokoak.
166. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, zeini dagokio lege hau zein neurritan betetzen den ebaluatzea?**
- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari.
 - b) EAEko administrazio publikoei.
 - c) Auzitegi arruntei.
 - d) Estatuaren Administrazio Orokorrari.
167. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio metodologia planifikatzea eta diseinatzea hauek berdintasun-printzipioari egokitzeko:**
- a) Ponentziak.
 - b) Irizpenak.
 - c) Estatistikak.
 - d) Txostenak.
168. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea toki hauetan era bateratuan egin beharrekoak direnean:**
- a) Lurralde historiko guztietan.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan eta Euskal Herriaren lurralde osoan.
 - c) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan.
 - d) EAEko udalerrri guztietan.
169. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio, halaber:**
- a) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko informazio-jarduerak egitea.
 - b) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko sentsibilizazio-jarduerak egitea.
 - c) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko orientazio-jarduerak egitea.
 - d) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko koordinazio-jarduerak egitea.

170. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio programa edo zerbitzuak ematea ondoan zehazten diren emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten, zerbitzu horien izaera dela-eta Erkidego osorako era bateratuan eman beharrekoak direnean:**
- a) Bereizkeria jasaten duten emakumeek.
 - b) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek.
 - c) Zuzeneko bereizkeria jasaten duten emakumeek.
 - d) Zeharkako bereizkeria jasaten duten emakumeek.
171. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzea helburu duten era honetako baliabide eta zerbitzuak ezartzea:**
- a) Publiko edo pribatuak.
 - b) Soziokomunitarioak.
 - c) Publikoak.
 - d) Publiko eta pribatuak.
172. **2005eko otsailaren 18ko Gizonezkoen eta Emakumezkoen Berdintasunerako 4/2005 Legearen ondoretarako, pertsona anitzeko administrazio-organismoetan ordezkari gaitzak joko da sexu biek gutxienez ordezkari gaitzak hau dutenean:**
- a) % 50eko ordezkari gaitzak dutenean.
 - b) % 40tik gorako ordezkari gaitzak dutenean.
 - c) % 45eko ordezkari gaitzak, gutxienez, dutenean.
 - d) % 40ko ordezkari gaitzak, gutxienez, dutenean.
173. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratudunen Hitzarmen Kolektiboa hauei aplikatuko zaie:**
- a) UPV/EHUrekin lotura juridiko eta laboral mugagabea edo aldi baterakoa duten administrazio eta zerbitzuetako langileei.
 - b) UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile guztiei.
 - c) UPV/EHUren zerbitzuetako funtzionarioei.
 - d) Lotura juridiko eta laboral mugagabea bakarrik duten administrazio eta zerbitzuetako langileei.
174. **Langile lan-kontratudunen lanpostuen zerrendak aldatzeko proposamenak:**
- a) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Batzorde Parekidearekin negoziatu ondoren.
 - b) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
 - c) UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
 - d) UPV/EHUko Klaustroak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.

175. **Promoio profesionalean parte hartu ahalko dute:**
- a) UPV/ EHUrekin lan-lotura finkoa duten langileek.
 - b) UPV/ EHUrekin lan-lotura finkoa duten langileek, betiere beren lanpostuan gutxienez bi urteko antzintasuna badute.
 - c) UPV/ EHUrekin lan-lotura duten langileek.
 - d) Gutxienez 5 urteko antzintasuna duten langile guztiek.
176. **Lanpostuen zerrendetan, hauek jaso behar dira:**
- a) Aurrekontuetan diruz hornituta dauden lanpostu guztiak.
 - b) Aurrekontuetan diruz hornituta egon eta langile funtzionarioentzat gordeta daudenak bakarrik.
 - c) Langile funtzionario eta langile lan-kontratudunentzakoak bakarrik, hutsik daudenak izan ezik.
 - d) Lanpostu guztiak, aurrekontuetan diruz hornituta egon nahiz ez.
177. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratudunen Hitzarmen Kolektiboaren arabera, norberaren kontuetarako baimena:**
- a) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu.
 - b) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu, eta Plangintza Batzordearen alde aurretiko baimena beharko da.
 - c) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu.
 - d) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu, eta Plangintza Batzordearen alde aurretiko baimena beharko da.
178. **Nahitaezko eszedentzian dagoen langileari dagokionez:**
- a) Lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, baina eszedentzia aldia ez zaio kontuan hartuko antzintasunerako.
 - b) Antzintasuna kontuan hartuko zaio, baina ez du eskubiderik izango lanpostua gordea izateko.
 - c) Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, eta eszedentzia-aldia kontuan hartuko zaio antzintasunerako.
 - d) Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du baldin eta eszedentzia 2 urte baino gutxiagokoa bada, eta antzintasunerako zenbatzeko eskubidea izango du.
179. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen Hitzarmen Kolektiboaren arabera, langileak, ezkonduz gero, eskubidea izango du:**
- a) 15 laneguneko baimena hartzeko.
 - b) 20 laneguneko baimena hartzeko.
 - c) 15 egun naturaleko baimena hartzeko.
 - d) 20 egun naturaleko baimena hartzeko.

180. **UPV/EHU-ko gizarte funtsa erabili ahalko dute:**
- a) UPV/EHUko irakasle eta/edo ikertzaile guztiek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek.
 - b) Langile funtzionarioek bakarrik.
 - c) Langile lan-kontratudunek bakarrik.
 - d) UPV/EHUko irakasle eta/edo ikertzaile guztiek.
181. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen Hitzar-men Kolektiboan aurreikusitako prestakuntza batzordea hauek osatuta egongo da:**
- a) Enpresa Batzordean langileen ordezkariak duten sindikatu bakoitzeko bi ordezkari eta administrazio beste horrenbeste ordezkari.
 - b) Enpresa Batzordean langileen ordezkariak duten sindikatu bakoitzeko ordezkari batek eta administrazio beste horrenbeste ordezkari.
 - c) Gehiengo duen sindikatuko bi ordezkari, Enpresa Batzordean langileen ordezkariak duten gainerako sindikatu bakoitzeko ordezkari batek eta Administrazio beste horrenbeste ordezkari.
 - d) Batzorde Parekideak dituen ordezkari berek.
182. **Erretiro partziala eta txanda-kontratua hartu nahi duten langileek baldintza hauek bete behar dituzte:**
- a) Langile lan-kontratuduna izatea.
 - b) Gutxienez 20 urteko antzinatasuna izatea.
 - c) Langile lan-kontratudun finkoa izatea eta UPV/EHU behin betiko lanpostu bat betetzen egotea zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran edo lanpostua gordetzea darraren beste edozeinetan, edo egonkortasuna aitortua izatea.
 - d) Langile lan-kontratudun finkoa izatea eta UPV/EHU behin betiko lanpostu bat betetzen egotea zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran edo lanpostua gordetzea darraren beste edozeinetan.
183. **UPV/EHUren Prebentzio Zerbitzua honela antolatuta dago:**
- a) Osasun Arloa eta Arlo Teknikoa.
 - b) Osasun-arlo bat campus bakoitzeko eta Arlo Teknikoa.
 - c) Osasun Arloa eta arlo teknikoak campus bakoitzeko.
 - d) Osasun Arloa, Arlo Teknikoa eta Psikologia Aplikatuak Saila.
184. **UPV/EHUren osasun arloaren zereginak hauek izango dira:**
- a) UPV/EHUko ikastegietako arriskuen ebaluazioak egitea.
 - b) Osasunaren zaintzari dagozkionak eta ergonomia eta psikosozial aplikatuarekin lotutako espezialitateei dagozkienak.
 - c) Istripu eta gorabeherak aztertzea, haien arrazoiak aztertzea eta berriro gerta daitezkeen eragozteko.
 - d) Larrialdi-planak diseinatu eta koordinatzea.

185. **Prebentzioko ordezkariak:**

- a) Larrialdi-planak diseinatzeko ardura dute.
- b) Prebentzio-jarduerak planifikatuko dituzte urtero prebentzioko teknikariek in batera.
- c) Unibertsitateko langileen izenean dihardute prebentzio arloan, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko arautegian jasotako eskumenak eta eskubideak izango dituzte.
- d) Larrialdi-planak kudeatzeko ardura izango dute.

186. **Administrazio publikoetako zuzendaritzako langile profesionalak:**

- a) Eraginkortasun- eta efizientzia-irizpideak aintzat hartuta ebaluatuko da haien zeregina.
- b) Ez daude araututa Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan.
- c) Lau urterako kontratatzen dira, eta beste lau urterako bakarrik luza dakieke kontratua.
- d) Ez daude aurreikusita unibertsitate publikoetarako.

187. **Administrazio-prozedura batean interesa duten pertsonatzat hartzen dira:**

- a) Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboan titular modura prozedura hori sustatu dutenak.
- b) Prozedura haiek ez hasi arren hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.
- c) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

188. **Herri-administrazioen Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, honelakotzat jotzen dira unibertsitate publikoak:**

- a) Administrazio publikotzat
- b) Zuzenbide publikoko korporaziotzat.
- c) Partzuergotzat.
- d) Sektore publiko instituzionaltzat.

189. **Administrazio-prozedura batean epe jakin bat egunetan adierazten denean, hau ulertzen da:**

- a) Egun naturalak direla.
- b) Egun balioudunak direla, igandeak eta jaiegun izendatuta daudenak izan ezik.
- c) Egun balioudunak direla, larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatuta daudenak izan ezik.
- d) Aurreko erantzunetatik, bat ere ez da zuzena.

190. **39/2015 Legearen arabera, zuzenbidean erabat deusezak dira:**

- a) ahozko administrazio-egintzak.
- b) legez ezarritako prozedura zeharo alboratuz egindako administrazio-egintzak.
- c) epez kanpo emandako administrazio-egintzak.
- d) aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

191. **39/2015 Legearen arabera, zein da epea egintza espresu baten aurka gora jotzeko errekurtsoko bat jartzeko?:**
- a) Hamabost egun.
 - b) Hilabete.
 - c) Bi hilabete.
 - d) Hiru hilabete.
192. **39/2015 Legearen arabera, gora jotzeko errekurtsoko bat jarri ondoren, zein da epea ebazteko eta ebazpena jakinarazteko?**
- a) Hilabete.
 - b) Bi hilabete.
 - c) Hiru hilabete.
 - d) Sei hilabete.
193. **Adierazi kasu hauetako zein ez den administrazio-errekurtsoko bat ez onartzeko arrazoiak:**
- a) Errekurtsogileak legitimaziorik ez izatea.
 - b) Errekurtsoko jartzeko epea igaro izana.
 - c) Errekurtsoko jarri ez dakiokkeen egintza izatea.
 - d) Errekurtsogileak okerren bat egitea errekurtsokoaren kalifikazioan.
194. **Administrazio-prozedura baten arauak bestelako eperen bat adierazten ez badu, hau izango da prozedura hori ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea:**
- a) Hilabete.
 - b) Bi hilabete.
 - c) Hiru hilabete.
 - d) Sei hilabete.
195. **39/2015 Legearen arabera, epe honetan egin behar dira jakinarazpen guztiak:**
- a) Gehienez hamar egun administrazio-egintzaren datatik.
 - b) Gehienez hamabost egun administrazio-egintzaren datatik.
 - c) Gehienez hilabete administrazio-egintzaren datatik.
 - d) Gehienez bi hilabete administrazio-egintzaren datatik.
196. **39/2015 Legearen arabera, noiz argitaratu behar dira egintza administratiboak?**
- a) Beti.
 - b) Egintzaren jasotzailea jende kopuru mugagabe bat denean.
 - c) Kalterako den egintza denean.
 - d) Administrazio-egintzak ezin dira argitaratu inoiz.

197. **39/2015 Legearen arabera, administrazio-prozedura batean interesa duen pertsonak, edo haren ordezkariak, administrazio-jardun baten jakinarazpena atzera botatzeko badu:**
- a) Berrito saiatu beharra dago jakinarazten interesdunak jasotzen duen arte.
 - b) Administrazio-jardun hori dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko da.
 - c) Espedientean aipatuko da, jakinarazteko egindako saioaren xehetasunak eta bidea zehaztuz; jakinarazitzat joko da, eta prozedurak aurrera egingo du.
 - d) Prozedura bertan behera utziko da beti.
198. **Nori dagokio UPV/EHU-ko Erregistro Orokorra mantentzea?**
- a) Idazkari nagusiari.
 - b) Errektoreari.
 - c) Dagokien zerbitziburuei.
 - d) Campuseko errektoreordetzei.
199. **Unibertsitateko klaustroa:**
- a) Unibertsitatearen gobernu-organoa da.
 - b) Gizarteak unibertsitatean parte hartzeko organoa da.
 - c) Jakintza-arlo bateko edo batzuetako ikasketak koordinatzeaz arduratzen den irakaskuntza- eta ikerketa-unitatea da.
 - d) Unibertsitateko kideen ordezkari-organoa da.
200. **UPV/EHU-ren Estatutuei jarraituz, zer organori dagokio beste organo batzuei espre-suki esleituak ez dauden eskumenak egikaritzea?**
- a) Gobernu Kontseiluari.
 - b) Klaustroari.
 - c) Errektoreari.
 - d) Idazkari nagusiari.

ATAL ESPEZIFIKOA

1. **Euskal Herriko berezko hizkuntzak dira:**
 - a) Euskara eta gaztelania.
 - b) Euskara bakarrik.
 - c) Euskara eta frantsesa.
 - d) Gaztelania eta frantsesa.

2. **Zeintzuk dira Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak?**
 - a) Euskara eta gaztelania.
 - b) Euskara bakarrik.
 - c) Euskara eta frantsesa.
 - d) Gaztelania eta frantsesa.

3. **Euskararen eta gaztelaniaren erabilera agindu hauei atxikiko zaie:**
 - a) Eusko Legebiltzarrak emango dituen aginduei.
 - b) Jaurlaritzak emango dituen aginduei.
 - c) Euskararen erabilpena arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legeari, eta Eusko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak emango dituzten aginduei.
 - d) Eusko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak emango dituzten aginduei.

4. **Adieraz ezazu zein erakundek egingo duen Euskal Herriko plangintza sozio-linguistikorako mapa:**
 - a) Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrari jakinarazi ondoren.
 - b) Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak.
 - c) Eusko Legebiltzarrak.
 - d) Euskaltzaindiak eta Eusko Jaurlaritzak.

5. **Euskararen erabilpena arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legearen aurkako xedapen hauek baliogabetuta geldituko dira:**
 - a) Maila apalagoko xedapen guztiak.
 - b) Maila bereko xedapen guztiak.
 - c) Udalek hartutako erabaki guztiak.
 - d) Maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

6. **Euskararen erabilpena arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legea indarrean jarri baino lehen hasitako espediente eta prozedura guztiek/guztiak:**
 - a) Hasi zireneko hizkuntzan jarraituko dute.
 - b) Euskaraz eta gaztelaniaz izapidetu behar dira.
 - c) Alderdiek erabakitako hizkuntzan jarraituko dute.
 - d) Euskaraz nahiz gaztelaniaz jarrai dezakete, gaiaren arabera.

7. **Norbanako batek baino gehiagok esku hartzen duten prozeduretan eta alderdien arteko adostasunik ez badago, zein hizkuntza erabiliko da?**
- a) Prozedura hasi duen alderdiak nahi duen hizkuntza.
 - b) Aginte publikoek nahi duten hizkuntza.
 - c) Alderdi kaltetuak nahi duen hizkuntza.
 - d) Alderdi guztiek ulertzen duten hizkuntza.
8. **Bi alderdiek argibideak aukerako hizkuntzan jasotzeko eskubidea izango dute:**
- a) Alderdiak elkar hartuta badaude.
 - b) Elkar hartzerik ez badago.
 - c) Beti.
 - d) Aginte publikoek hala erabakitzen badute.
9. **Zein hizkuntzatan erregistratuko dira Autonomia Erkidegoaren mendeko erregistro publikoetako agiriak?**
- a) Euskaraz eta gaztelaniaz.
 - b) Euskaraz.
 - c) Gaztelaniaz.
 - d) Idatzita dauden hizkuntza ofizialean.
10. **Zein hizkuntzatan idatzita egon behar dute Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan dauden herri-administrazioetako arauak eta ebazpen ofizialek ?**
- a) Euskaraz eta gaztelaniaz.
 - b) Euskaraz.
 - c) Gaztelaniaz.
 - d) Tokiko administrazioak erabakitzen duen hizkuntzan.
11. **Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko aginte publikoek esku hartzen duten egin-tza guztiek, eta bai jakinarazpen guztiek ere, bi hizkuntzatan egon behar dute, salbu eta:**
- a) Aginte publikoak hizkuntza ofizialetatik bat hautatzen duenean.
 - b) Herritarren eskubideak kaltetzen ez direnean.
 - c) Euskara bakarrik erabiltzen denean.
 - d) Doakienek berariaz hizkuntza ofizialetatik bat hautatzen dutenean.
12. **Agintari publikoek, toki-administrazioaren alorrean, euskara bakarrik erabili ahal izango dute:**
- a) Gizartearen hizkuntza-egoera aintzat hartuta.
 - b) Herritarren eskubideak kaltetzen ez direnean.
 - c) Udalak hala erabakitzen duenean.
 - d) Doakienek berariaz euskara hautatzen dutenean.

13. **Justizia Administrazioarekiko harremanetan euskaraz aurkeztutako idazki eta agiri guztiek balio osoa izango dute:**
- a) Itzulpenarekin batera aurkezten badira.
 - b) Itzuli behar izan gabe.
 - c) Eusko Jaurlaritzako Itzulpen Zerbitzu Ofizialak egiaztatutako itzulpenarekin batera aurkezten badira.
 - d) Zinpeko itzultzaile batek egiaztatutako itzulpenarekin batera aurkezten badira.
14. **Zeini dagokio Euskal Herriko Justizia Administrazioan euskararen erabilpena normalizatzea?**
- a) Eusko Jaurlaritzari, dagokien organoekin elkar hartuta.
 - b) Justizia Administrazioari.
 - c) Estatuaren administrazio orokorrari.
 - d) Euskal Herriko Justizia-Auzitegi Nagusiari.
15. **Zein erakundeek finkatuko dituzte Autonomia Erkidegoko toki-izen ofizialak?**
- a) Eusko Jaurlaritzak eta Foru-Erakundeek.
 - b) Foru-Erakundeek eta Toki-Erakundeek.
 - c) Eusko Jaurlaritzak eta Toki-Erakundeek.
 - d) Eusko Jaurlaritzak, Foru-Erakundeek eta Toki-Erakundeek.
16. **Toki-Erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren artean toki-izen ofizialei buruzko auziren bat gertatuz gero, zeini dagokio auzia ebaztea?**
- a) Euskaltzaindiari.
 - b) Eusko Jaurlaritzari, aurrez Euskaltzaindiari bere iritzia eskatu ondoren.
 - c) Euskaltzaindiari, aurrez Eusko Jaurlaritzari bere iritzia eskatu ondoren.
 - d) Dagokion Toki-Erakundeari, aurrez Euskaltzaindiari bere iritzia eskatu ondoren.
17. **Euskal Herritik abiatzen diren garraio publikoetako zerbitzu guztietan jendearen-tzako iragarkiak, mezuak eta adierazpenak:**
- a) Euskaraz bakarrik egingo dira.
 - b) Gaztelaniaz bakarrik egingo dira.
 - c) Euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.
 - d) Hizkuntza ofizialetako batean, iragarki, mezu edota adierazpenaren edukia aintzat hartuta.
18. **Zeini dagokio euskararen eta gaztelaniaren arteko zinpeko itzultzaile-interpretaren titulua lortzeko baldintzak arautzea?**
- a) Jaurlaritzari.
 - b) Kanpo-Arazoetarako Ministerioari.
 - c) Euskaltzaindiari.
 - d) Jaurlaritzari eta Euskaltzaindiari, biak elkar hartuta.

19. **Zein erakundek edo organok bermatzen du itzulpenen zehaztasuna eta legezko baliokidetasuna?**
- a) Euskaltzaindiak.
 - b) Jaurlaritzako Itzulpen Zerbitzu Ofizialak.
 - c) Jaurlaritzako Justizia Sailak.
 - d) Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak.
20. **Diru-laguntza publikoa jaso eta Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza arautua ofiziala ez den hizkuntza batean ematen duten ikastegi pribatuek:**
- a) Euskara eta gaztelania nahitaezko ikasgai gisa emango dituzte.
 - b) Euskara nahitaezko ikasgai gisa emango dute.
 - c) Gaztelania nahitaezko ikasgai gisa emango dute.
 - d) Gurasoek edo ikasleek aukeratu ez duten hizkuntza ofiziala nahitaez irakatsi behar ko dute.
21. **Euskara ikastea barkatu ahal izango zaie ikasle hauei:**
- a) Ikasketak Euskal Herriko Autonomia-Erkidegotik kanpo hasi dituztenei.
 - b) Ohiko egoitza Autonomia-Erkidegoan ez dutela egiaztatzen dutenei.
 - c) Batxilergoa Euskal Herriko Autonomia-Erkidegotik kanpo hasi dutenei.
 - d) Ikasketak Euskal Herriko Autonomia-Erkidegotik kanpo hasi dituztenei edo ohiko egoitza Autonomia-Erkidegotik kanpo dutenei.
22. **Jaurlaritzak herritarrek albisteak euskaraz nahiz gazteleraz jasotzeko eskubidea bermatzeko eta euskarazko argitalpenak sustatzeko neurriak hartuko ditu hedabide hauetan:**
- a) Irratian, egunkari eta aldizkarietan.
 - b) Zineman.
 - c) Antzerki eta ikuskizunetan.
 - d) Aurreko guztietan.
23. **Euskara publizitatean erabiltzea sustatuko dute:**
- a) Euskal hiritarrek, Jaurlaritzarekin elkar hartuta.
 - b) Euskal agintari publikoek.
 - c) Euskal hiritarrek.
 - d) Euskal hiritarrek, Legebiltzarrarekin elkar hartuta.
24. **Jaurlaritzak helduen alfabetatze eta berreuskalduntzerako erakunde publiko bat sortuko du. Nola arautuko da erakunde hori?**
- a) Legebiltzarraren lege baten bidez.
 - b) Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez.
 - c) Hezkuntza Sailak emandako dekretu baten bidez.
 - d) Eusko Jaurlaritzaren lege-proiektu baten bidez.

25. **Zein arduratuko da Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko lur-eremuan euskararen batasunaz eta normalizazioaz?**
- Legebiltzarra.
 - Eusko Jaurlaritza.
 - Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza.
 - Euskaltzaindia.
26. **Zer da hizkuntza-eskakizuna?**
- Administrazioan erabiltzen diren hizkuntzen izaera ofiziala.
 - Lanpostu bat hornitu eta bete ahal izateko beharrezkoa den euskarazko hizkuntza-gaitasunaren maila zehazten duena.
 - Euskararen ezagutza-maila zehazten duena.
 - Euskararen edo gaztelaniaren ezagutza-maila zehazten duena.
27. **Euskal Herri-Administrazioetako lanpostu-zerrendetan nahitaez agertu beharreko berariazkotasunen artean, zera sartu behar dira:**
- Euskararen normalkuntza plana.
 - Euskara nahitaez bete beharreko indizea.
 - Hizkuntza-eskakizuna eta, hala behar izanez gero, haren derrigortasun-data.
 - Hizkuntza-eskakizuna esleitu zaien lanpostu ororen derrigortasun-data.
28. **Eusko Jaurlaritzak arautze-lanak egin ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko. Zein arau ez da lan horren fruitu?**
- Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen erabilpena arauzkotzekoa.
 - Urriaren 17ko 224/1989 Dekretua, Euskal Autonomia-Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintza arautzen duena.
 - Urriaren 9ko 264/1990 Dekretua, lanpostuei izendatutako hizkuntz eskakizunen derrigortasuna zehazteko irizpideak ezartzen dituena.
 - Abenduaren 3ko 18/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.
29. **Apirilaren 15eko 86/1997 dekretuaren arabera, eta lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan, zerbitzu-hizkuntza hau da:**
- Administratuarekin ahozko zein idatzizko harremanetan erabiltzen den hizkuntza.
 - Administratuarekin ahozko harremanetan erabiltzen den hizkuntza.
 - Administratuarekin idatzizko harremanetan erabiltzen den hizkuntza.
 - Administratuak ahoz zein idatziz jarduteko hautatzen duen hizkuntza.
30. **Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera, lan-hizkuntza hau da:**
- Administratuarekin idatzizko harremanetan erabiltzen den hizkuntza.
 - Lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan erabiltzen den hizkuntza.
 - Administratuarekin ahozko harremanetan erabiltzen den hizkuntza.
 - Administratuak ahoz zein idatziz jarduteko hautatzen duen hizkuntza.

31. **Esparru hauetako zeinetan ez da ezarriko hizkuntza normalizatzeko prozesua bideratu eta taxutzeko araudia?**
- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan.
 - b) Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioan eta zerbitzuetan.
 - c) Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietan.
 - d) Euskal Herriko Justizia-Auzitegi Nagusian.
32. **Hizkuntza normalizatzeko egitarauak burutzerakoan, plangintzaldiak zenbat urteko iraupena izango du?**
- a) Bi urtekoa.
 - b) Bost urtekoa.
 - c) Urtebetekoa.
 - d) Entitate bakoitzak ezarriko duena.
33. **Noiz igorri behar dio Hizkuntza Politikarako Sailordetzak Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari hizkuntza-normalkuntzarako prozesuari buruzko txostena?**
- a) Plangintzaldi bakoitzaren hirugarren urtea betetakoan.
 - b) Plangintzaldi bakoitza amaitutakoan.
 - c) Plangintzaldi bakoitzaren hirugarren urtea betetakoan eta plangintzaldi bakoitza amaitutakoan.
 - d) Plangintzaldi bakoitzaren bosgarren urtea betetakoan.
34. **Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioetan dauden lanpostuak betetzeko, eta hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez bada:**
- a) Euskararen ezagutza meritu gisa baloratu beharko da, bai lanpostuak betetzerakoan, bai langileak hartzerakoan.
 - b) Euskararen ezagutza meritu gisa baloratu beharko da lanpostuak betetzerakoan.
 - c) Euskararen ezagutza meritu gisa baloratu beharko da langileak hartzerakoan.
 - d) Euskararen ezagutza ez da meritu gisa baloratu beharko.
35. **Noiz egiaztatuta behar du hizkuntza-eskakizunak?**
- a) Derrigortasun-data pasa eta handik urtebetera.
 - b) Derrigortasun-data pasa eta handik hilabetera.
 - c) Derrigortasun-data pasa eta hurrengo bi urteotan.
 - d) Derrigortasun-datatik aurrera.
36. **Nola kalkulatzen da administrazio bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean bete beharreko derrigorrezko hizkuntza-eskakizunen indizea?**
- a) Euskaldunak + (Ia Euskaldunak/2)
 - b) Euskaldunak + (Ia Euskaldunak/3)
 - c) Euskaldunak + (Erdaldunak/2)
 - d) Euskaldunak + (Erdaldunak/3)

37. **Zer da «a» mailako hizkuntza-gaitasuna?**

- a) Komunikazio-gaitasun ertaina erakusten duen gaitasuna.
- b) Komunikazio-gaitasun mugatua erakusten duen gaitasuna.
- c) Herri-administrazioaren lan-esparruan beharrezko den gutxieneko gaitasun komunikatibo-funtzionalerako atalasea.
- d) Goi mailako komunikazio-gaitasuna erakusten duen gaitasuna.

38. **Zer da «b» mailako hizkuntza-gaitasuna?**

- a) Komunikazio-gaitasun ertaina erakusten duen gaitasuna.
- b) Goi mailako komunikazio-gaitasuna erakusten duen gaitasuna.
- c) Komunikazio-gaitasun mugatua erakusten duen gaitasuna.
- d) Gai espezializatuak erabiltzeko gaitasuna.

39. **Zer da «c» mailako hizkuntza-gaitasuna?**

- a) Komunikazio-gaitasun ertaina erakusten duen gaitasuna.
- b) Goi mailako komunikazio-gaitasuna erakusten duen gaitasuna.
- c) Komunikazio-gaitasun mugatua erakusten duen gaitasuna.
- d) Inolako mugarik ez duen komunikazio-gaitasuna, ez erabilera arruntari dagokionez, ezta gai espezializatuak dagokienez ere.

40. **Zein azalpen dagokio 1. hizkuntza-eskakizunari?**

- a) Lanpostuaren jabea gai izango da ahozko nahiz idatzizko edozein testuren ideia nagusia ulertzeko, ñabardurez konturatzen ez bada ere.
- b) Lanpostuaren jabea gai izango da edozein komunikabideren bitartez informazioa eskatu eta emateko.
- c) Lanpostuaren jabea gai izango da era guztietako eskutitzak, barne-idazkiak eta administrazio-espeditenteak idazteko.
- d) Lanpostuaren jabea gai izango da bere lanarekin zerikusia duen edozein hizkuntz ekintzetan azalpenak jariorasunez egiteko.

41. **Zein azalpen dagokio 2. hizkuntza-eskakizunari?**

- a) Lanpostuaren jabea gai izango da bere lanarekin zerikusia duen edozein hizkuntz ekintzetan azalpenak jariorasunez egiteko.
- b) Lanpostuaren jabea gai izango da era guztietako eskutitzak, barne-idazkiak eta administrazio-espeditenteak idazteko.
- c) Lanpostuaren jabea gai izango da edozein komunikabideren bitartez informazioa eskatu eta emateko.
- d) Lanpostuaren jabea gai izango da ahozko nahiz idatzizko edozein testuren ideia nagusia ulertzeko, ñabardurez konturatzen ez bada ere.

42. **Zein azalpen dagokio 3. hizkuntza-eskakizunari?**

- a) Lanpostuaren jabea gai izango da era guztietako eskutitzak, barne-idazkiak eta administrazio-espeditenteak idazteko.
- b) Lanpostuaren jabea gai izango da ahozko nahiz idatzizko edozein testuren ideia nagusia ulertzeko, ñabardurez konturatzen ez bada ere.
- c) Lanpostuaren jabea gai izango da edozein komunikabideren bitartez informazioa eskatu eta emateko.
- d) Lanpostuaren jabea gai izango da bere lanarekin zerikusia duen edozein hizkuntz ekintzetan azalpenak jarriotasunez egiteko.

43. **Zein azalpen dagokio 4. hizkuntza-eskakizunari?**

- a) Lanpostuaren jabea gai izango da edozein komunikabideren bitartez informazioa eskatu eta emateko.
- b) Lanpostuaren jabea gai izango da bere lanarekin zerikusia duen edozein hizkuntz ekintzetan azalpenak jarriotasunez egiteko.
- c) Lanpostuaren jabea gai izango da ahozko nahiz idatzizko edozein testuren ideia nagusia ulertzeko, ñabardurez konturatzen ez bada ere.
- d) Lanpostuaren jabea gai izango da era guztietako eskutitzak, barne-idazkiak eta administrazio-espeditenteak idazteko.

44. **Zer eskatzen da 4. hizkuntza-eskakizunean?**

- a) Oinarrizko maila hizkuntz trebetasun guztietan.
- b) Gaitasun-maila jasoak lau hizkuntz trebetasunetan.
- c) Oinarrizko maila hizkuntz trebetasun guztietan, idazmenean izan ezik.
- d) Benetako testuak ulertzea, idatzizkoak zein ahozkoak.

45. **Hauek dira administrazio-atal elebidunak:**

- a) Beren zereginak batez ere gaztelaniaz betetzen dituzten administrazio-atalak.
- b) Beren zereginak batez ere euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak.
- c) Beren zereginak Euskal Autonomia-Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan betetzen dituzten administrazio-atalak.
- d) Euskararen erabilera normalizatzeko planak finkatuko dituzten administrazio-atalak.

46. **Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren ezarpen-esparruan dauden erakundeetako bakoitzak derrigorrez bete beharreko indizea %45etik %70era bitartekoa denean:**

- a) Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz ere.
- b) Administrazio-atal elebidunak jarriko dira izaera orokorreko ataletan.
- c) Euskarazko administrazio-atalak jarriko dira.
- d) Administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan.

47. **Euskararen erabilera normalizatzeko planetan, jarraibide hauetatik zein ez da jaso behar:**
- a) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak.
 - b) Erakundearen gaur egungo hizkuntz egoera.
 - c) Euskara nola erabili eta tratatuko den administratuekin ahozko zein idatzizko harremanetan.
 - d) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak jasotako plan-proposamenei buruzko txostena.
48. **Euskal Herri-Administrazioek euskararen erabilera normalizatzeko planei buruzko ebaluazio-txostena egingo dute plana onartu denetik:**
- a) Bigarren urtea betetzen denean.
 - b) Lehen urtea betetzen denean.
 - c) Lehen sei hilabeteak betetzen direnean.
 - d) Bosgarren urtea betetzen denean.
49. **Derrigortasun-data behar duten lanpostuak zehazteko orduan, zein irizpide ez da aintzakotzat hartuko:**
- a) Jendearekin izaten den harremana.
 - b) Lanpostuaren titularrak duen euskara-maila.
 - c) Lanpostuaren harreman-sarea.
 - d) Lanpostuaren ezaugarriak.
50. **Titularren euskara-mailari begiratuta alde handirik ez badago, nola ezarriko da lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizunaren derrigortasuna?**
- a) Titularrak berak eskatzen badu bere dotazioan ezartzeko.
 - b) Adinaren arabera ezarriko da derrigortasuna.
 - c) Titular zaharrenaren dotazioan ezarriko da derrigortasuna.
 - d) Lanpostu horren denborarik gehien daraman titularraren dotazioan ezarriko da derrigortasuna.
51. **Hizkuntza-eskakizunak direla eta, lanpostu-zerrendetan egon daitezkeen aldaketak egin aurretik, zeini eskatu behar dio aholku Herri-Administrazio bakoitzak?**
- a) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.
 - b) Sindikatu eta erakunde sindikalei.
 - c) Euskal Funtzio Publikoari
 - d) Eusko Jaurlaritzari.
52. **Langileak aukeratzeko nahiz lanpostuak betetzeko, 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunen kasuan, euskararen ezagutzari emango zaizkion portzentaiak hauek izango dira:**
- a) %5etik %10era
 - b) %11tik %20ra
 - c) %1etik %10era
 - d) %20tik %25era

53. **Langileak aukeratzeko nahiz lanpostuak betetzeko, 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunen kasuan, euskararen ezagutzari emango zaizkion portzentaiak hauek izango dira:**
- a) %5etik %10era
 - b) %11tik %20ra
 - c) %1etik %10era
 - d) %20tik %25era
54. **Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak deialdiak egingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan diharduten langileen hizkuntza- eskakizunak egiaztatzeke. Noizero egingo dira deialdi horiek?**
- a) Sei hilabeterik behin.
 - b) Urtean behin.
 - c) Bi urterik behin.
 - d) Derrigortasun-data igarota duten lanpostuak bete behar direnean.
55. **Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke prozesuetan, onartutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren erreklamazioak aurkezteke epea zabalduko da. Zenbat egunekoa da epe hori?**
- a) Lau egun naturalekoa, gutxienez.
 - b) Bost lanegunekoa, gutxienez.
 - c) Zazpi egun naturalekoa, gutxienez.
 - d) Zazpi lanegunekoa, gutxienez.
56. **Noiz izango dituzte ondorioak hizkuntza-eskakizunen egiaztapenek?**
- a) Azterketen emaitzak argitaratu eta handik zazpi egun naturalera.
 - b) Azterketen emaitzak argitaratzen direnean.
 - c) Azterketen emaitzak argitaratu eta hurrengo egunean.
 - d) Azterketen emaitzak argitaratu eta handik zazpi lanegunera.
57. **Zeini dagokio hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke proben edukia eta eta forma finkatzea?**
- a) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari.
 - b) Funtzio Publikoaren Euskal Batzordeari.
 - c) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.
 - d) Tokian tokiko herri-administrazioei.
58. **Azterketariak administrazioan sartzea lortzen ez badu, hautaketa-probetan egiaztatutako hizkuntza-eskakizunek behin-betiko balioa izango dute:**
- a) 1. hizkuntz eskakizunari dagokionez.
 - b) 3. eta 4. hizkuntz eskakizunei dagokienez.
 - c) 2., 3. eta 4. hizkuntz eskakizunei dagokienez.
 - d) Hizkuntz eskakizun guztiei dagokienez.

59. **Hirugarren hizkuntza-eskakizunaren baliokideak hauek dira:**
- a) Hezkuntza-sistemako HE1 eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskarako 4. maila.
 - b) EGA eta Hezkuntza-sistemako HE2.
 - c) Hezkuntza-sistemako HE2 eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskarako 4. maila.
 - d) EGA eta Hezkuntza-sistemako HE1.
60. **Nork ez du hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-araudi orokorra bete beharrik izango?**
- a) Plangintzaldietako bakoitza hasterakoan 50 urtetik gora dutenek.
 - b) Oinarrizko Batxilerra edo Oinarrizko Heziketa Orokorra gainditu ez dutenek.
 - c) Plangintzaldietako bakoitza hasterakoan 55 urtetik gora dutenek.
 - d) Plangintzaldietako bakoitza hasterakoan 40 urtetik gora dutenek.
61. **Zein arlotan izango dira hizkuntz normalkuntza-prozesua arautzeko arau bereziak?**
- a) Osasun arloan eta Ertzaintzan.
 - b) Ertzaintzan.
 - c) Hezkuntzan, Osasun arloan eta Ertzaintzan.
 - d) Hezkuntzan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Osasun arloan.
62. **Nori aitortuko zaio laugarren hizkuntza-eskakizuna?**
- a) EGA titulua eskuratu dutenei.
 - b) Teknikari Gaituaren hizkuntz eskakizuna egiaztatuta dutenei.
 - c) Karrerako funtzionarioei, baldin eta lanpostu horretan sartu badira hizkuntz eskakizun hori ezarri baino lehenago.
 - d) Hizkuntzak ikasteko gutxienezko trebetasun-gaitasunik ez dutenei.
63. **UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariak lege hauetatik zein ez du kontuan hartu behar?**
- a) Euskal Autonomia-Erkidegoko Autonomia Estatutua.
 - b) Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legea.
 - c) Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea.
 - d) 38/2000 Dekretua, otsailaren 29koa, Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala arautzen duena.
64. **2013. urtean lanpostuen zerrendako arduraldi osoko irakasleen zein ehuneko zen elebidun?**
- a) %47
 - b) %35
 - c) %28
 - d) %31

65. **II. Plan Gidariaren arabera, euskarazko eta gaztelaniazko irakas-eskaintzaren arteko desorekarik handiena non gertatzen da?**
- a) Hautazko kredituetan.
 - b) Derrigorrezko kredituetan.
 - c) Graduondoko eskaintzan.
 - d) Adarreko oinarrizko kredituetan.
66. **Hizkuntza-eskakizunak direla eta, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileek derrigor bete beharreko indizea zein da?**
- a) %25
 - b) %48,46
 - c) %50 edo hortik gorakoa.
 - d) %40 edo hortik gorakoa.
67. **Administrazio eta zerbitzuetako langileei ezarritako hizkuntza-eskakizunei dagokienez, zein da UPV/EHUK derrigorrez bete beharreko indizea?**
- a) %45etik %70era bitartekoa.
 - b) %0tik %25era bitartekoa.
 - c) %25etik %45era bitartekoa.
 - d) %70etik %90era bitartekoa.
68. **Hurrengo helburuetatik zein ez dago UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariaren helburu nagusien artean?**
- a) Euskara unibertsitatearen kideen hizkuntza jaso izatea.
 - b) HAEE/IVAPekin elkarlanean aritzea.
 - c) UPV/EHU euskararen garapenean eta normalizazioan erakunde aitzindaria izaten jarraitzea.
 - d) Unibertsitario euskaldunen erkidegoa sendotzea eta trinkotzea.
69. **Hurrengo helburuetatik zein ez dago UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariaren helburu espezifikoaren artean?**
- a) HAEE/IVAPekin elkarlanean aritzea.
 - b) Unibertsitario euskaldunen erkidegoa sendotzea eta trinkotzea.
 - c) Irakasmaterialen kalitate linguistikoa bermatzea.
 - d) Doktore-titulua daukaten irakasle eta ikertzaile elebidunen kopurua gehitzea.
70. **Euskarazko irakas-eskaintzari dagokionez, hurrengo helburuetatik zein ez dago UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariaren helburu espezifikoaren artean?**
- a) Doktore-titulua daukaten irakasle eta ikertzaile elebidunen kopurua gehitzea.
 - b) Irakasmaterialen kalitate linguistikoa bermatzea.
 - c) Esperientzia-geletako ikasketetan euskararen eskaintza handitzea.
 - d) Ikasleen eskubide linguistiko-komunikatiboa bermatzea.

71. **Testugintzaren alorrean hurrengo helburuetatik zein ez dago UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariaren helburu espezifikoaren artean?**
- a) Ikasliburuen itzulpenak sustatzea.
 - b) Unibertsitateko irakasleek ikasmaterialak sor ditzatela bultzatzea.
 - c) Irakasle-ikertzaileek euskaraz ekoiztutako dokumentuak eta horietan erabilitako terminologia erreala kontsultagai jartzea.
 - d) Hobekuntza-ikastaroak eskaintzea irakasle-ikertzaileei.
72. **Ikerketa eta zabalkundeari dagokionez, hurrengo helburuetatik zein ez dago UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariaren helburu espezifikoaren artean?**
- a) Zientzia-dibulgazioko jardunaldiak euskaraz antolatzea.
 - b) Euskaraz eginiko ikerketaren oihartzuna handitzea.
 - c) Euskara Zerbitzuaren egitura indartzea.
 - d) Euskara erabiltzen duten ikerketa taldeak sustatzea.
73. **UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariaren arabera, Administrazio eta zerbitzuen pertsonalari dagokionez, eta jendaurreko arreta elebiduna emateko asmoz, zein lanposturi jarriko zaizkie derrigortasuna?**
- a) Plazaren titularrak hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten postuei.
 - b) Plazaren titularrak hizkuntza-eskakizuna egiaztatua EZ duten postuei.
 - c) Jendaurreko zerbitzua eman behar ez dutenei.
 - d) Erretiroa hartuko ez duten langileen postuei.
74. **UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariak hainbat hizkuntza-eredu ezartzen ditu graduetako eskaintzan. Zeini dagokio c eredu?**
- a) Lehen bi kurtsoak euskaraz ikasteko aukera dagoenean.
 - b) Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoaren adinakoa denean.
 - c) Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoa baino ugariagoa denean.
 - d) Gradu osoa euskaraz ikasteko aukera dagoenean.
75. **UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariak hainbat hizkuntza-eredu ezartzen ditu graduetako eskaintzan. Zeini dagokio a eredu?**
- a) Lehen bi kurtsoak euskaraz ikasteko aukera dagoenean.
 - b) Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoaren adinakoa denean.
 - c) Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoa baino ugariagoa denean.
 - d) Gradu osoa euskaraz ikasteko aukera dagoenean.
76. **UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariak hainbat hizkuntza-eredu ezartzen ditu graduetako eskaintzan. Zeini dagokio d eredu?**
- a) Lehen bi kurtsoak euskaraz ikasteko aukera.
 - b) Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoaren adinakoa.
 - c) Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoa baino ugariagoa.
 - d) Gradu osoa euskaraz ikasteko aukera.

77. **UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariak hainbat hizkuntza-eredu ezartzen ditu graduetak eskaintzan. Zeini dagokio d+ ereduak?**
- a) Lehen bi kurtsoak euskaraz ikasteko aukera.
 - b) Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoaren adinakoa.
 - c) Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoa baino ugariagoa.
 - d) Gradu osoa euskaraz ikasteko aukera.
78. **UPV/EHUko master guztiek gutxienez irakasgai bat euskaraz eskaini behar izango dute:**
- a) Osorik gaztelaniaz eskaintzen badira.
 - b) Ez badira hizkuntza ez-ofizial batean osoki eskaintzen.
 - c) Hizkuntza ez-ofizial batean osoki eskaintzen badira.
 - d) Ikasleen erdia baino gehiago elebiduna bada.
79. **Plan estrategikoaren amaierarako graduako kredituen zein ehunekotara iritsi behar du euskarazko eskaintzak?**
- a) %50etik gora.
 - b) %81etik gora.
 - c) %75etik gora.
 - d) %45etik gora.
80. **Graduondoko hizkuntzak hauek izango dira:**
- a) Euskara eta gaztelania.
 - b) Euskara, gaztelania eta frantsesa.
 - c) Euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa.
 - d) Euskara, gaztelania eta ingelesa.
81. **UPV/EHUren Itzulpen Zerbitzuaren barruan nazioartean oinarrizkoak diren liburuak itzuli ondoren, bi berrikusketa izaten dituzte. Nor aritzen da berrikusketa-lan horretan?**
- a) IZOko zuzentzaileak eta Euskara Zerbitzuko adituak.
 - b) IZOko zuzentzaileak eta UPV/EHUko irakasleak.
 - c) Euskara Zerbitzuko adituak eta UPV/EHUko irakasleak.
 - d) UPV/EHUko irakasleak eta IZOko zuzentzaileak.
82. **Campusetako euskara batzordeek itzultzeko proposatutako liburuek honako irizpide hauek errespetatu behar dituzte:**
- a) Originalak 400 orrialde baino gehiago izatea.
 - b) Liburua «klasikoa» ez izatea.
 - c) Enborrezko edo nahitaezko irakasgai baterako edo bat baino gehiagotarako izatea.
 - d) Azaltzen duen gaiak gutxienez 10 urtez garrantzia izango duela aurreikustea.

83. **Zerbitzu hauetatik zein ez dago euskara zerbitzuaren ardurapean?**
- a) Ikasmaterialen berme linguistikoa.
 - b) Dokumentu administratiboen itzulpena.
 - c) Hizkuntza-aholkularitza.
 - d) Euskaldunen arteko sare-lanak egitea.
84. **UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariak zenbat urteko indarraldia du?**
- a) Bost.
 - b) Hamar.
 - c) Lau.
 - d) Bi.
85. **UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidariaren amaieran, Administrazio Zerbitzuetako lanpostuen zerrendaren zein ehunekok izan behar du gainditua hizkuntza-eskaki-zunaren derrigortasun-data?**
- a) %45ek gutxienez.
 - b) %50ek gutxienez.
 - c) %50-70 artean gutxienez.
 - d) %65-70 artean gutxienez.
86. **Zenbat dira Europar Batasuneko egungo hizkuntza ofizialak?**
- a) 21
 - b) 26
 - c) 24
 - d) 20
87. **Europar Batasunean zenbat hizkuntza erregional edo gutxitu daude?**
- a) 60 inguru.
 - b) 40 inguru.
 - c) 30 inguru.
 - d) 20 inguru.
88. **1992an Hizkuntza Erregional edo Gutxituen Gutuna onartu zen. Gutunaren arabera, zeini dagokio gutxiengo linguistikoen eskubideak bermatu eta zaintzea:**
- a) Europako Kontseiluari.
 - b) Europako Parlamentuari.
 - c) Estatuei.
 - d) Europako Batzordeari.

89. **Europako Batzordeak itzulpenak errazteko hainbat programa jarri ditu abian. Programa edo ekimen hauetatik zein ez dago itzulpenarekin lotuta?**
- a) Eurodicautom.
 - b) Lingua.
 - c) eTranslation.
 - d) Eurotra.
90. **Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren barne funtzionamendua zein hizkuntzatan egiten da?**
- a) Frantsesez eta ingelesez.
 - b) Prozedura abiarazi duen hizkuntzan.
 - c) Frantsesez.
 - d) Hizkuntza ofizial guztietan.
91. **Zeintzuk dira Europako Kontseiluaren hizkuntza ofizialak?**
- a) Frantsesa eta ingelesa.
 - b) Ingelesa bakarrik.
 - c) Frantsesa bakarrik.
 - d) Alemana, frantsesa eta ingelesa.
92. **Europar Batasuneko zein erakundetan erabil daiteke ahoz euskara?**
- a) Europako Parlamentuan.
 - b) Europako Batzordean.
 - c) Europako Parlamentuan eta Europako Batzordean.
 - d) Europako Kontseiluan eta Eskualdeetako Komitean.
93. **Europar Batasunak harturiko neurrien artean zeinek ekarri zion euskarari babes berezia?**
- a) 2002an Bartzelonan egindako Europar Kontseiluan lorturiko ondorioek.
 - b) Hizkuntza Gutxituen Europako Gutunak.
 - c) Europar Batasuneko hizkuntza-erregimena arautzen duen Kontseiluaren 1/1958 Erregelamenduak.
 - d) 2014ko maiatzaren 20ko Kontseiluak eleaniztasunari buruz eta hizkuntza-gaitasunei buruz lorturiko ondorioek.
94. **Europako Parlamentuak eta Kontseiluak elkarrekin erabakita adostutako ekintzen itzulpena euskaraz eginez gero, zerbitzu horren gastuak zeinen kargu izango dira?**
- a) Europako Parlamentuaren kargu izango dira.
 - b) Europar Kontseiluaren kargu izango dira.
 - c) Zerbitzua eskatu duen estatu kidearen kargu izango dira.
 - d) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren kargu izango dira.

95. **Europar Kontseiluan badago euskaraz egiterik?**
- a) Ez, bakarrik Europar Batasunean ofizialak diren hizkuntzetan egin baitaiteke.
 - b) Bai, garaiz eskatu baldin bada.
 - c) Ez, bakarrik ingelesez eta frantsesez egin baitaiteke.
 - d) Bai, garaiz eskatu baldin bada eta behar diren baliabideak badaude.
96. **Euskarazko komunikazioak idatziz bidaliz gero, eta Europar Batasuneko erakundeek erantzuteko epe baten zain egon beharra dutenean, zein izango da epe hori kontatzen hasteko eguna?**
- a) Estatu kideak erakundeari igorritako itzulpena jasotako eguna.
 - b) Herritarrak euskaraz bidalitako komunikazioari Batasuneko erakunde horretako erregistroan sarrera eman zaion eguna.
 - c) Euskarazko komunikazioari estatu kide horretako gobernuak izendatutako organoan sarreran eman zaion eguna.
 - d) Euskarazko komunikazioa estatu kide horretako gobernuan jaso den eguna.
97. **Zein da euskarazko idatzizko komunikazioak itzultzeko ardura duen organoa edo erakundea?**
- a) Zinpeko itzultzaileak.
 - b) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala.
 - c) Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak.
 - d) Europar Batasuneko Itzulpen Zerbitzua.
98. **Zer da Eurodicautom?**
- a) Europar Batasuneko Itzulpen Zentroa.
 - b) Europar Batzordeko lehen datu-base terminologikoa.
 - c) Europako Parlamentuko Itzulpen Zerbitzuko datu-base terminologikoa.
 - d) Europako Justizia-Auzitegiaren datu-base terminologikoa.
99. **Zer da IATE?**
- a) Europar Batasuneko erakundeen arteko datu-base terminologikoa.
 - b) Europar Batzordeko lehen datu-base terminologikoa.
 - c) Europar Parlamentuko Itzulpen-Zerbitzuko datu-base terminologikoa.
 - d) Europako Justizia-Auzitegiaren datu-base terminologikoa.
100. **Europar Batasuneko zein erakundek onartu zuen hizkuntza gutxituen Europako Gutuna?**
- a) Europako Parlamentuak.
 - b) Europako Kontseiluak.
 - c) Europako Batzordeak.
 - d) Europako Batzordeak eta Eskualdeetako Komiteak.

101. **Europako Ministroen Kontseiluko lan-hizkuntzak hauek dira:**
- a) Presidentzia duen Estatuaren hizkuntza ofiziala eta ingelesa.
 - b) Ingelesa, frantsesa eta alemana.
 - c) Hizkuntza ofizial guztiak.
 - d) Ingelesa eta frantsesa.
102. **Hizkuntza Erregional edo Gutxituen Gutunak zein hizkuntza ez ditu aintzakotzat hartzen?**
- a) Emigranteen hizkuntzak.
 - b) Dialektoak eta emigranteen hizkuntzak.
 - c) Dialektoak.
 - d) Eskualdeetako hizkuntzak.
103. **Hizkuntza erregional edo gutxituen aldeko ebazpenetan zein berrikuntza ekarri zuen Kuijpers ebazpenak?**
- a) Estatuko gobernuei hizkuntza gutxituen aldeko politika hezkuntzan egiteko eskatzea.
 - b) Lurraldearen garapen ekonomikoa hizkuntzaren normalizazioarako funtsezko faktorea dela aldarrikatzea.
 - c) Eskualdeetako gobernuei hizkuntza gutxituen aldeko politika egiteko eskatzea.
 - d) Estatuetan hizkuntza gutxituak diskriminatzen zituzten legeak indarrrik gabe uzteko eskatzea.
104. **Ikuspegi hauetatik zein ez dator bat hizkuntza-politika eleaniztunarekin?**
- a) Ingelesa hartzea Europar Batasuneko lan-hizkuntza bakartzat.
 - b) Hizkuntzen ezagutza areagotzea.
 - c) Etorkizuneko europarrek, ama-hizkuntzaz gain, beste bi hizkuntza jakitea.
 - d) Lan-hizkuntzak ez mugatzea.
105. **Non aurkitzen da Europar Batasunaren hizkuntza-aniztasuna bermatzen duen oinarri juridikoa?**
- a) Europar Batasunaren Tratatuan.
 - b) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan.
 - c) Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean.
 - d) Europar Batasunaren Tratatuan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean.
106. **Eleaniztasunaren alorrean helburu hauetatik zein ez da Europar Batzordearen helburua?**
- a) Ekonomia eleaniztuna sustatzea.
 - b) Itzulpen automatikoa bultzatzea.
 - c) Hizkuntzak ikastea sustatzea.
 - d) Hiritarrei Europar Batasunari buruzko informazioa beren hizkuntzan eskaintzea.

107. **Zer da hizkuntza-gaitasunaren adierazle europarra?**
- a) Hizkuntza-gaitasuna sustatzeko tresna.
 - b) Hizkuntzak ikastea sustatzeko tresna.
 - c) Europar kultura-ondarea babesteko tresna.
 - d) Europar Batasuneko estatu kideek orokorrean dituzten hizkuntza-ezagutzak neur-tzeko tresna.
108. **Zer da Mercator?**
- a) Hezkuntza eleaniztuna eta hizkuntzen irakaskuntza ikertzeko gune europarra.
 - b) Europako Itzulpen-masterra.
 - c) Europar Batzordearen itzulpen automatikoko zerbitzua.
 - d) Europar Batasunaren hezkuntza eta prestakuntza sustatzeko programa.
109. **Zer bultzatzen du Europa sortzaile izeneko programak?**
- a) Teknologia berriak.
 - b) Literaturako itzulpenen ekimenak.
 - c) Itzultzaile gazteak.
 - d) Europako hizkuntzen eguna.
110. **Europar Batasuneko zein erakundek onartu zuen Erasmus+ programa?**
- a) Europako Batasuneko Batzordeak.
 - b) Europako Batasuneko Parlamentuak.
 - c) Europar Batasuneko ministroen Kontseiluak.
 - d) Europako Batasuneko Batzordeak eta ministroen Kontseiluak.
111. **Besteak beste, zer finantzatzen du Erasmus+ egitasmoak?**
- a) Zeinu-hizkuntzak irakastea eta ikastea.
 - b) Literaturako itzulpenak.
 - c) Plataforma digital eleaniztunak.
 - d) Europar Batasuneko datu-base terminologikoa.
112. **Hautatu honako esaldi hauen artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konben-tzio estilistikoaren arabera:**
- a) Lehentasuna izango dute BBK-k finantzaturiko beka-programa batean aurretik par-te hartu bakoek.
 - b) Lehentasuna izango dute BBK-ak finantzaturiko beka-programa batean aurretik parte hartu bakoek.
 - c) Lehentasuna izango dute BBKk finantzaturiko beka-programa batean aurretik par-te hartu bakoek.
 - d) Lehentasuna izango dute BBKak finantzaturiko beka-programa batean aurretik par-te hartu bakoek.

113. **Hautatu honako esaldi hauen artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoen arabera:**
- a) Barakaldoko BECen, azaroaren 10etik 13ra.
 - b) Barakaldoko BECen, azaroaren 10etik 13ra.
 - c) Barakaldoko BECn, azaroaren 10etik 13ra.
 - d) Barakaldoko BEC-en, azaroaren 10etik 13ra.
114. **Hautatu honako esaldi hauen artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoen arabera:**
- a) MDe enpresari hitzarmenaren bi ale bidaliko dizkio ohiko postaz.
 - b) MDe-k enpresari hitzarmenaren bi ale bidaliko dizkio ohiko postaz.
 - c) MDe-k enpresari hitzarmenaren bi ale bidaliko dizkio ohiko postaz.
 - d) MDe-ek enpresari hitzarmenaren bi ale bidaliko dizkio ohiko postaz.
115. **Hautatu honako esaldi hauen artean zuzena, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera:**
- a) Hona joan: Azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretua
 - b) Hona joan: Azaroaren 6ko 1671/2009 *Errege Dekretua*
 - c) Hona joan: Azaroaren 6ko 1671/2009 *Errege Dekretua*
 - d) Hona joan: Azaroak 6ko 1671/2009 Errege Dekretua
116. **Hautatu, honako esaldi hauen artean, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera hobesten dena:**
- a) «Iraunkortasuna eta ekonomia zirkularra GIEn» erakusketa
 - b) »Iraunkortasuna eta ekonomia zirkularra GIEn« erakusketa
 - c) «Iraunkortasuna eta ekonomia zirkularra GIEn» erakusketa
 - d) «Iraunkortasuna eta ekonomia zirkularra GIEn» erakusketa
117. **Hautatu, honako esaldi hauen artean, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera hobesten dena:**
- a) Honako hau dio 7.5 artikulua: «Nolanahi ere, gradu amaierako lanen kalifikazioak urriaren 31 baino lehen ageri behar du matrikulatutako ikaslearen espedientean, gai honi dagokion atalean.»
 - b) Honako hau dio 7.5 artikulua: «Nolanahi ere, gradu amaierako lanen kalifikazioak urriaren 31 baino lehen ageri behar du matrikulatutako ikaslearen espedientean, gai honi dagokion atalean.»
 - c) Honako hau dio 7.5 artikulua: «Nolanahi ere, gradu amaierako lanen kalifikazioak urriaren 31 baino lehen ageri behar du matrikulatutako ikaslearen espedientean, gai honi dagokion atalean.»
 - d) Honako hau dio 7.5 artikulua: Nolanahi ere, gradu amaierako lanen kalifikazioak urriaren 31 baino lehen ageri behar du matrikulatutako ikaslearen espedientean, gai honi dagokion atalean.

118. **Hautatu honako esaldi hauen artean zuzena, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera:**
- a) Gainera, alegia batzuk argitaratu ziren Manterolaren *Cancionero* delakoan eta zenbait aldizkaritan.
 - b) Gainera, alegia batzuk argitaratu ziren Manterolaren *Cancionero* delakoan eta zenbait aldizkaritan.
 - c) Gainera, alegia batzuk argitaratu ziren Manterolaren «*Cancionero*» delakoan eta zenbait aldizkaritan.
 - d) Gainera, alegia batzuk argitaratu ziren Manterolaren «*Cancionero*» delakoan eta zenbait aldizkaritan.
119. **Hautatu honako esaldi hauen artean zuzena, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera:**
- a) Bustidura gertaerak aztertu ditu M. Lourdes Oñederrak *Euskal Fonologia: Palatalizazioa* (1990) doktorego tesian.
 - b) Bustidura gertaerak aztertu ditu M. Lourdes Oñederrak «Euskal Fonologia: Palatalizazioa» (1990) doktorego tesian.
 - c) Bustidura gertaerak aztertu ditu M. Lourdes Oñederrak «*Euskal Fonologia: Palatalizazioa*» (1990) doktorego tesian.
 - d) Bustidura gertaerak aztertu ditu M. Lourdes Oñederrak *Euskal Fonologia: Palatalizazioa* (1990) doktorego tesian.
120. **Hautatu honako esaldi hauen artean zuzena, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera:**
- a) Honetaz gain, *-ain* osagaiak Nafarroako toponimian daukan esparruaz ere badira txosten bi (1986) eta *-doi* atzizkiaz ere bai beste bat (1991).
 - b) Honetaz gain, *-ain* osagaiak Nafarroako toponimian daukan esparruaz ere badira txosten bi (1986) eta *-doi* atzizkiaz ere bai beste bat (1991).
 - c) Honetaz gain, «*-ain*» osagaiak Nafarroako toponimian daukan esparruaz ere badira txosten bi (1986) eta «*-doi*» atzizkiaz ere bai beste bat (1991).
 - d) Honetaz gain, *-ain* osagaiak Nafarroako toponimian daukan esparruaz ere badira txosten bi (1986) eta *-doi* atzizkiaz ere bai beste bat (1991).
121. **Hautatu, honako esaldi hauen artean, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera hobesten dena:**
- a) *Goenkaleko* Txapasek zioen «Hori egina zegok» bere egin zuten gazte askok, imitazioa baita ikasteko beste bide bat.
 - b) *Goenkaleko* Txapasek zioen «Hori egina zegok» bere egin zuten gazte askok, imitazioa baita ikasteko beste bide bat.
 - c) *Goenkaleko* Txapasek zioen «Hori egina zegok» bere egin zuten gazte askok, imitazioa baita ikasteko beste bide bat.
 - d) *Goenkaleko*-ko Txapasek zioen «Hori egina zegok» bere egin zuten gazte askok, imitazioa baita ikasteko beste bide bat.

122. **Hautatu, honako esaldi hauen artean, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera hobesten dena:**
- a) Mitxelenak urrunago ere aurkituko ditu ezaugarri honen aztarnak: «De la terminación de Rent. *azkure* «comezón», *minbere* «dolorido» podría inferirse que el fenómeno tuviera mayor extensión en época antigua [...]».
 - b) Mitxelenak urrunago ere aurkituko ditu ezaugarri honen aztarnak: «De la terminación de Rent. *azkure* «comezón», *minbere* «dolorido» podría inferirse que el fenómeno tuviera mayor extensión en época antigua [...]».
 - c) Mitxelenak urrunago ere aurkituko ditu ezaugarri honen aztarnak: «De la terminación de Rent. *azkure* «comezón», *minbere* «dolorido» podría inferirse que el fenómeno tuviera mayor extensión en época antigua [...]».
 - d) Mitxelenak urrunago ere aurkituko ditu ezaugarri honen aztarnak: «De la terminación de Rent. *azkure* 'comezón', *minbere* 'dolorido' podría inferirse que el fenómeno tuviera mayor extensión en época antigua [...]».
123. **Hautatu, honako esaldi hauen artean, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera hobesten dena:**
- a) Prieto de Pedro-ren iritziz, «kultura hitzaren sorrera berri samarra da.» Duela hiru mende, 1690ean, *Dictionnaire Universelek* kulturaren esanahi tradizionala bakarrik jaso zuen.
 - b) Prieto de Pedro-ren iritziz, «kultura hitzaren sorrera berri samarra da.» Duela hiru mende, 1690ean, *Dictionnaire Universelek* kulturaren esanahi tradizionala bakarrik jaso zuen.
 - c) Prieto de Pedro-ren iritziz, «kultura hitzaren sorrera berri samarra da.» Duela hiru mende, 1690ean, *Dictionnaire Universelek* kulturaren esanahi tradizionala bakarrik jaso zuen.
 - d) Prieto de Pedro-ren iritziz, «kultura hitzaren sorrera berri samarra da.» Duela hiru mende, 1690ean, *Dictionnaire Universelek* kulturaren esanahi tradizionala bakarrik jaso zuen.
124. **Hautatu honako esaldi hauen artean zuzena, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera:**
- a) Maiatzan eta apirilean berri on urri.
 - b) Maiatzean eta apirilean berri on urri.
 - c) Maiatzean eta apirilari berri on urri.
 - d) Maiatzan eta apirilari berri on urri.

125. **Hautatu honako esaldi hauen artean zuzena, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera:**
- a) 1998an, ikuspegi historikotik begiratuta, Koldo Zuazok hurrengo urteetarako erronka zein den azaltzen du *Euskaldunon Egunkariko* artikulua luzexka batean («Euskara, hurrengo iraultzaren atarian», 1998).
 - b) 1998an, ikuspegi historikotik begiratuta, Koldo Zuazok hurrengo urteetarako erronka zein den azaltzen du *Euskaldunon Egunkariako* artikulua luzexka batean («Euskara, hurrengo iraultzaren atarian», 1998).
 - c) 1998an, ikuspegi historikotik begiratuta, Koldo Zuazok hurrengo urteetarako erronka zein den azaltzen du *Euskaldunon Egunkariko* artikulua luzexka batean («Euskara, hurrengo iraultzaren atarian», 1998).
 - d) 1998an, ikuspegi historikotik begiratuta, Koldo Zuazok hurrengo urteetarako erronka zein den azaltzen du *Euskaldunon Egunkariako* artikulua luzexka batean («Euskara, hurrengo iraultzaren atarian», 1998).
126. **Adierazi, honako esaldi hauen artean, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera zein den okerra:**
- a) Euskadi Irratiko *Amarauna* saioan Unai Urreagan kazetariak eta nik elkarrizketa izan dugu.
 - b) Euskadi Irratiko *Amarauan* Unai Urreagan kazetariak eta nik elkarrizketa izan dugu.
 - c) Euskadi Irratiko *Amarauan* Unai Urreagan kazetariak eta nik elkarrizketa izan dugu.
 - d) Euskadi Irratiko *Amarauna* irratsaioan Unai Urreagan kazetariak eta nik elkarrizketa izan dugu.
127. **Adierazi, honako esaldi hauen artean, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera zein den okerra:**
- a) Aurkitzaileak, Suitzako Paul Muller-ek, Nobel saria irabazi zuen.
 - b) Aurkitzaileak, Suitzako Paul Mullerrek, Nobel saria irabazi zuen.
 - c) Aurkitzaileak, Suitzako Paul Mullerrek, Nobel saria irabazi zuen.
 - d) Suitzako Paul Muller aurkitzaileak Nobel saria irabazi zuen.
128. **Adierazi, honako esaldi hauen artean, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera zein den okerra:**
- a) U.E.U. LAGUNTZA ESKE
 - b) UEU laguntza eske
 - c) UEU LAGUNTZA ESKE
 - d) Ueu laguntza eske
129. **Adierazi, honako esaldi hauen artean, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera zein den okerra:**
- a) U.Z.E.I.REN GUNE BERRIA
 - b) UZEI-REN GUNE BERRIA
 - c) UZEIren gune berria
 - d) Uzei-ren gune berria

130. **Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera, adierazi zein den honako esaldi honen itzulpen zuzena: Antes de ello, el 9 de mayo de 2007, obtuvo la certificación UNE 139803 de Aenor.**
- a) Hori baino lehen, 2007ko maiatzaren 9an, Aenor erakundeko UNE 139803 ziurtagiria jaso zuen.
 - b) Hori baino lehen, 2007ko maiatzaren 9an, AENORreko UNE 139803 ziurtagiria jaso zuen.
 - c) Hori baino lehen, 2007ko maiatzaren 9an, AENORreko UNE 139803 ziurtagiria jaso zuen.
 - d) Hori baino lehen, 2007ko maiatzaren 9an, AENORreko erakundeko UNE 139803 ziurtagiria jaso zuen.
131. **Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera, adierazi zein den honako esaldi honen itzulpen zuzena: El Presidente de EUDEL viaja a Túnez.**
- a) EUDELko presidentek Tunisiara bidaiatuko du.
 - b) EUDELeko presidentek Tunisiara bidaiatuko du.
 - c) EUDEL-ko presidentek Tunisiara bidaiatuko du.
 - d) EUDEL-eko presidentek Tunisiara bidaiatuko du.
132. **Hautatu honako esaldi hauen artean zuzena, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera:**
- a) HGLko komunikazioaren izaera asimetrikoa.
 - b) HGLEko komunikazioaren izaera asimetrikoa.
 - c) HGL-eko komunikazioaren izaera asimetrikoa.
 - d) HGL-ko komunikazioaren izaera asimetrikoa.
133. **Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera, adierazi zein den honako esaldi honen itzulpen zuzena: Entre dos realidades: EEUU vs Europa.**
- a) Bi errealitateren artean: AEB vs. Europa.
 - b) Bi errealitateren artean: AEB vs. Europa.
 - c) Bi errealitateren artean: AEB vs Europa.
 - d) Bi errealitateren artean: AEB vs Europa.
134. **Hautatu honako esaldi hauen artean zuzena, Zubimendiren Ortotipografia estilo-liburuaren arabera:**
- a) EHUko Euskara Zerbitzuak testuetan egitura osoa (*eta abar*) erabiltzea gomendatzen du, eta laburdura, berriz, tauletan *etab.*-etan.
 - b) EHUko Euskara Zerbitzuak testuetan egitura osoa (*eta abar*) erabiltzea gomendatzen du, eta laburdura, berriz, tauletan *eta abarretan*.
 - c) EHUko Euskara Zerbitzuak testuetan egitura osoa (*eta abar*) erabiltzea gomendatzen du, eta laburdura, berriz, tauletan *etabetan*.
 - d) EHUko Euskara Zerbitzuak testuetan egitura osoa (*eta abar*) erabiltzea gomendatzen du, eta laburdura, berriz, tauletan *etab.*-etan.

135. **Hautatu honako esaldi hauen artean zuzena:**
- a) Azken bolada honetan ez dut beste liburuarik irakurri.
 - b) Azken bolada honetan ez dut beste libururik irakurri.
 - c) Azken bolada honetan ez dut beste liburuik irakurri.
 - d) Azken bolada honetan ez ditut beste libururik irakurri.
136. **Adierazi zein den honako esaldi honen itzulpen zuzena: El contrato debe estar redactado con la debida claridad y sencillez, sin referencia al texto.**
- a) Kontratuaren idazkerak argia eta ulerterraza izan behar du, eta ez du testuaren aipamenik egin behar.
 - b) Kontratuaren idazkerak argia eta ulerterraza izan behar du, eta ez ditu testuaren aipamenik egin behar.
 - c) Kontratuaren idazkerak argia eta ulerterraza izan behar du, eta ez du testuaren aipamenarik egin behar.
 - d) Kontratuaren idazkerak argia eta ulerterraza izan behar du, eta ez ditu testuaren aipamenarik egin behar.
137. **Adierazi zein den honako esaldi honen itzulpen zuzena: El centro permanecerá abierto de lunes a domingo, durante todo el año, a excepción de los días 25 de diciembre y 1 de enero.**
- a) Zentroa urte osoan egongo da irekita, astelehenetik igandera, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean ezik.
 - b) Zentroa urte osoan egongo da irekita, astelehenetik igandera, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1 izan ezik.
 - c) Zentroa urte osoan egongo da irekita, astelehenetik igandera, abenduaren 25ean eta urtarrilak 1 ezik.
 - d) Zentroa urte osoan egongo da irekita, astelehenetik igandera, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik.
138. **Adierazi zein den honako esaldi honen itzulpen zuzena: Matricularse de todo lo pendiente, excepto la libre elección.**
- a) Egin gabe dauden irakasgai guztietan matrikulatu behar da, aukera askekoak izan ezik.
 - b) Egin gabe dauden irakasgai guztietan matrikulatu behar da, aukera askekoetan izan ezik.
 - c) Egin gabe dauden irakasgai guztietan matrikulatu behar da, aukera askekoak ezik.
 - d) Egin gabe dauden irakasgai guztietan matrikulatu behar da, aukera askekoetan ezik.
139. **Adierazi zein den honako esaldi honen itzulpen zuzena: La traductora Bego Montorio estuvo aquí y realizamos un taller de traducción con los de quinto curso.**
- a) Bego Montorio itzultzailea hemen izan zen eta itzulpengintza lantegi bat egin zuen bosgarren mailakoekin.
 - b) Bego Montorio itzultzailea hemen izan zen eta itzulpengintza lantegi bat egin zuen 5garren mailakoekin.
 - c) Bego Montorio itzultzailea hemen izan zen eta itzulpengintza lantegi bat egin zuen bosgarren mailakoekin.
 - d) Bego Montorio itzultzailea hemen izan zen eta itzulpengintza lantegi bat egin zuen bostgarren mailakoekin.

140. **Hauta ezazu aukera zuzena:**
- a) Hogeita bosgarren urteurrena ospatuko dute.
 - b) Hogeita bostgarren urteurrena ospatuko dute.
 - c) Hogeita boskarren urteurrena ospatuko dute.
 - d) Zenbagarren urteurrena ospatuko dute?
141. **Hauta ezazu aukera zuzena:**
- a) Zenbagarrena da Koldo? Hogeita batgarrena.
 - b) Zenbatgarrena da Koldo? Hogeita bakarrena.
 - c) Zenbagarrena da Koldo? Hogeita bagarrena.
 - d) Zenbatgarrena da Koldo? Hogeita batgarrena.
142. **Zein baztertuko zenuke?**
- a) Seina liburu erosi dituzue?
 - b) Zenbat liburu erosi dituzue?
 - c) Zenbatna liburu erosi dituzue?
 - d) Zenbana liburu erosi dituzue?
143. **_____ ez zen halakorik gertatzen, _____, ordea, bai.**
- a) XVII. mendean / xx. mendean
 - b) 17 mendean / 20 mendean
 - c) XVII. mendean / xx.mendean
 - d) XVIIgarren mendean / xxgarren mendean
144. **Zein baztertuko zenuke?**
- a) hamabosgarren
 - b) hamabostgarren
 - c) hogeita batgarren
 - d) berrogeita batgarren
145. **Zein da zuzena?**
- a) Bost mila euro bana eman zizkiguten.
 - b) Bosna mila euro bana eman zizkiguten.
 - c) Bost milana euro eman zizkiguten.
 - d) Bosna mila euro eman zizkiguten.
146. **Zein da zuzena?**
- a) Tamalez, oso gutxi izaten dira benetazko lagunak.
 - b) Tamalez, oso gutxi izaten dira bene-benetazko lagunak.
 - c) Tamalez, oso gutxi izaten dira benetako lagunak.
 - d) Tamalez, oso gutxi izaten dira bene benetazko lagunak.

147. **Zein da hobesten den esaldia?**

- a) Hemen ez da inor betiko sortu denik.
- b) Hemen ez da inor betirako sortu denik.
- c) Hemen ez da inor betiako sortu denik.
- d) Hemen ez da inor beti-betirako sortu denik.

148. **Adierazi zein den honako esaldi honen itzulpen zuzena: Del escrito interponiendo recurso de apelación se dará traslado, una vez concluido el término para recurrir, a las demás partes.**

- a) Idazkiaren bidez gora jotzeko errekurtsua jartzen denean, idazki hori jakin araziko zaie gainerako alderdiei, behin errekurtsua jartzeko epemuga amaituta.
- b) Idazkiaren bidez gora jotzeko errekurtsua jartzen denean, idazki hori jakinaraziko zaie gainerako alderdiei, behin errekurtsua jartzeko epemuga amaituta.
- c) Idazkiaren bidez gora jotzeko errekurtsua jartzen denean, idazki hori jakineraziko zaie gainerako alderdiei, behin errekurtsua jartzeko epemuga amaituta.
- d) Idazkiaren bidez gora jotzeko errekurtsua jartzen denean, idazki hori jakin eraziko zaie gainerako alderdiei, behin errekurtsua jartzeko epemuga amaituta.

149. **Zein da zuzena? Irakasleak «Kixote Mantxako» liburua osorik...**

- a) irakurtarazi digu.
- b) irakurrarazi digu.
- c) irakurri arazi digu.
- d) irakur arazi digu.

150. **Zein baztertuko zenuke?**

- a) Diru gabarik nekez bizi da inor.
- b) Diru gabe nekez bizi da inor.
- c) Dirurik gabe nekez bizi da inor.
- d) Dirurik gabarik nekez bizi da inor.

151. **Zein baztertuko zenuke?**

- a) Burmuineko aktibitate elektrikoa hizkuntz gaitasuna neurtzeko.
- b) Burmuineko aktibitate elektrikoa hizkuntz-gaitasuna neurtzeko.
- c) Burmuineko aktibitate elektrikoa hizkuntza gaitasuna neurtzeko.
- d) Burmuineko aktibitate elektrikoa hizkuntza-gaitasuna neurtzeko.

152. **Zein baztertuko zenuke?**

- a) Gutun honen bidez, kultur astea antolatzeko diru-laguntza eskatzen dizugu.
- b) Gutun honen bidez, kultur-astea antolatzeko diru-laguntza eskatzen dizugu.
- c) Gutun honen bidez, kultura astea antolatzeko diru-laguntza eskatzen dizugu.
- d) Gutun honen bidez, kultura-astea antolatzeko diru-laguntza eskatzen dizugu.

153. **Zein da zuzena?**

- a) *Konpromisoa hartu baino hobe da hitz eman esatea.*
- b) *Konpromisoa hartu baino hobe da hitzeman esatea.*
- c) *Konpromisoa hartu baino hobe da hitz-eman esatea.*
- d) *Konpromisoa hartu baino hobe da hitz-eman esatea.*

154. **Zein da zuzena?**

- a) Gidaliburu honek prozedura guztiak pausoz-pauso laburbilduko ditu.
- b) Gidaliburu honek prozedura guztiak pausuz-pausu laburbilduko ditu.
- c) Gidaliburu honek prozedura guztiak pausoz pauso laburbilduko ditu.
- d) Gidaliburu honek prozedura guztiak pausozpauso laburbilduko ditu.

155. **Aukera ezazu euskara batuan zuzena dena:**

- a) Giza-eskubideak
- b) Giza eskubideak
- c) Gizaeskubideak
- d) Gizeskubideak

156. **Inprimaki edo formulario batean, zein da hobesten den aukera:**

- a) Izena eta deitura
- b) Izen deiturak
- c) Izen-deiturak
- d) Izena eta deiturak

157. **Zein da zuzena?**

- a) Iker lan interesgarria burutu zuen.
- b) Ikerlan interesgarria burutu zuen.
- c) Iker-lan interesgarria burutu zuen.
- d) Idaz-lan interesgarria burutu zuen.

158. **Zein da zuzena?**

- a) Europar Batasuneko legedia bete beharko da hemendik aurrera.
- b) EB-ko legedia bete beharko da hemendik aurrera.
- c) Europar Batasunako legedia bete beharko da hemendik aurrera.
- d) Europar-Batasuneko legedia bete beharko da hemendik aurrera.

159. **Zein da zuzena?**

- a) Zuk, behinik-behin, badakizu nola jokatu behar den.
- b) Zuk, behinik behin, badakizu nola jokatu behar den.
- c) Zuk, behinipein, badakizu nola jokatu behar den.
- d) Zuk, behinikbehin, badakizu nola jokatu behar den.

160. **Zein da zuzena?**

- a) Batikbat zuregatik egin dut honainoko bidai luzea.
- b) Batipat zuregatik egin dut honainoko bidai luzea.
- c) Batik-bat zuregatik egin dut honainoko bidai luzea.
- d) Batik bat zuregatik egin dut honainoko bidai luzea.

161. **Zein da zuzena?**

- a) Bileran geundela, bat-batean altxatu eta alde egin zuen deus ere erran gabe.
- b) Bileran geundela, bapatean altxatu eta alde egin zuen deus ere erran gabe.
- c) Bileran geundela, bat batean altxatu eta alde egin zuen deus ere erran gabe.
- d) Bileran geundela, ba patean altxatu eta alde egin zuen deus ere erran gabe.

162. **Zein da zuzena?**

- a) Guraso batzuk berandu iritsi direnez gero, bilera amaitutakoan emanen dugu oharra.
- b) Guraso batzuk berandu iritsi diren ezker, bilera amaitutakoan emanen dugu oharra.
- c) Guraso batzuk berandu iritsi ezker, bilera amaitutakoan emanen dugu oharra.
- d) Guraso batzuk berandu iritsi diren ezker, bilera amaitutakoan emanen dugu oharra.

163. **Zein EZ da zuzena?**

- a) Eguerdiko hamabiak ezker, asper-asper eginda egon gara zure zain kale kantoiko tabernan.
- b) Eguerdiko hamabiez gero, asper-asper eginda egon gara zure zain kale kantoiko tabernan.
- c) Zerbait egitea erabaki ezker, neu ere laguntzeko prest izango nauzue.
- d) Zerbait egitea erabakiz gero, neu ere laguntzeko prest izango nauzue.

164. **Hauta ezazu aukera zuzena:**

- a) Edurne ta ikusi ditugu liburu-dendan.
- b) Edurne-ta ikusi ditugu liburu-dendan.
- c) Edurne eta ikusi ditugu liburu-dendan.
- d) Edurne eta, ikusi ditugu liburu-dendan.

165. **Zein da zuzena?**

- a) Zuen zai zegoen asper-asper eginda.
- b) Zuen zain zegoen asper-asper eginda.
- c) Zuen zai zeogen asper asper eginda.
- d) Zuen zain zegoen asper asper eginda.

166. **Zein da zuzena?**
- a) Horrela egin du Euskaltzaindiak, zenbakien deklinabidez eman duen arauan ere.
 - b) Horrela egin du Euskaltzaindiak, zenbakien deklinabidez eman duen arauean ere.
 - c) Horrela egin du Euskaltzaindik, zenbakien deklinabidez eman duen arauean ere.
 - d) Horrela egin du Euskaltzaindik, zenbakien deklinabidez eman duen arauan ere.
167. **Zein da zuzena?**
- a) Angeluarrik ez da agertu azaroaren lauean.
 - b) Angeluarrik ez da agertu azaroaren lauan.
 - c) Angeluarrik ez da agertu azaroak 4ean.
 - d) Ez da angeluarrik agertu azaroak 4.
168. **Zein da zuzena?**
- a) Gaiaz aldatzea nahiago izan zuen.
 - b) Gaiz aldatzea nahiago izan zuen.
 - c) Gaiez aldatzea nahiago izan zuen.
 - d) Gaiarekin aldatzea nahiago izan zuen.
169. **Zein da zuzena?**
- a) Merezi du sanferminetara joatea.
 - b) Merezi du sanferminetara joateak.
 - c) Pena merezi du sanferminetara joateak.
 - d) Pena merezi du sanferminetara joatea.
170. **Zein aukera hobesten du Euskaltzaindiak?**
- a) Merezi du, hitzaldia eman aurretik, norbaiten aurrean lehenago entseatzeak.
 - b) Merezi du, hitzaldia eman aurretik, norbaiten aurrean lehenago entseatzea.
 - c) Merezi du, hitzaldia eman aurretik, norbaiten aurrean lehenago entseiatzeak.
 - d) Merezi du, hitzaldia eman aurretik, norbaiten aurrean lehenago entseiatzea.
171. **Euskaltzaindiak emandako izenak kontuan harturik, zein EZ da zuzena?**
- a) Euskal Autonomia Elkartea
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoa
 - c) Nafarroako Foru Erkidegoa
 - d) Nafarroako Foru Komunitatea
172. **Euskaltzaindiak emandako izenak kontuan harturik, zein EZ da zuzena?**
- a) Gaztela-Mantxa
 - b) Gaztela Mantxa
 - c) Gaztela eta Leon
 - d) León

173. **Zein da zuzena?**
- a) Ongi etorri, bikote!
 - b) Ongi etorria, bikote!
 - c) Ongi etorriak, bikote!
 - d) Bikote, ongi etorriak!
174. **Adierazi zein den honako esaldi honen itzulpen zuzena: Las ermitas de San Vicente, en el barrio de Narea y la de San Blas son las últimas que se visitan a lo largo de un recorrido de 25 kilómetros.**
- a) Narea auzoko San Bizente ermita eta San Blas ermita dira 25 kilometrotako ibilbide honetan bisitatuko dituzten azkenak.
 - b) Narea auzoko San Bizente ermita eta San Blas ermita dira 25 kilometroetako ibilbide honetan bisitatuko dituzten azkenak.
 - c) Narea auzoko San Bizente ermita eta San Blas ermita dira 25 kilometroko ibilbide honetan bisitatuko dituzten azkenak.
 - d) Narea auzoko San Bizente ermita eta San Blas ermita dira 25 kilometrootako ibilbide honetan bisitatuko dituzten azkenak.
175. **Zein da hobesten den aukera?**
- a) Irulitxa taldeak bi emanaldi egingo ditu, eguerdiko ordu batetan eta arratsaldeko sei eta erdietan.
 - b) Irulitxa taldeak bi emanaldi egingo ditu, eguerdiko ordu batean eta arratsaldeko sei eta erdietan.
 - c) Irulitxa taldeak bi emanaldi egingo ditu, eguerdiko ordu batean eta arratsaldeko sei t'erdietan.
 - d) Irulitxa taldeak bi emanaldi egingo ditu, eguerdiko ordu batean eta arratsaldeko sei eta erditan.
176. **Zein da zuzena?**
- a) Hiruetan sartu nintzen ohera eta seiretan esnatu.
 - b) Hiruetan sartu nintzen ohera eta seiretan esnatu.
 - c) Hiruetan sartu nintzen ohera eta seietan esnatu.
 - d) Hiruetan sartu nintzen ohera eta seietan esnatu.
177. **Zein da zuzena?**
- a) Gela 10:00etatik 18:30era egongo da zabalik fakultatea irekita dagoen egun guztietan.
 - b) Gela 10:00etik 18:30etara egongo da zabalik fakultatea irekita dagoen egun guztietan.
 - c) Gela 10:00etik 18:00era egongo da zabalik fakultatea irekita dagoen egun guztietan.
 - d) Gela 10:00etatik 18:00era egongo da zabalik fakultatea irekita dagoen egun guztietan.

178. **Zein da aukera hedatuena?**

- a) Fakultatean egon behar du hamabiak laurden gutxiagoetan.
- b) Fakultatean egon behar du hamabiak laurden gutxitan.
- c) Fakultatean egon behar du hamabiak laurden gutxiagoan.
- d) Fakultatean egon behar du hamabiak laurden gutxietan.

179. **Zein da zuzena?**

- a) Bilera martxoaren 23an izango da, 9:00etan.
- b) Bilera martxoaren 23an izango da, 9,00etan.
- c) Bilera martxoaren 23an izango da, 09:00ean.
- d) Bilera martxoaren 23an izango da, 09:00etan.

180. **Zein da zuzena?**

- a) Arrasaten, 2018ko maiatzaren 22
- b) Arrasate, 2018ko maiatzak 22a
- c) Arrasaten, 2018ko maiatzaren 22an
- d) Arrasaten, 2018ko Maiatzaren 22an

181. **Zein da zuzena?**

- a) Izena emateko epea ekainaren 28tik uztailaren 8ra dago zabalik.
- b) Izena emateko epea ekainak 28tik uztailak 8ra dago zabalik.
- c) Izena emateko epea Ekainaren 28tik Uztailaren 8ra dago zabalik.
- d) Izena emateko epea Ekainak 28tik Uztailak 8ra dago zabalik.

182. **Zein da zuzena?**

- a) Lehen deialdiko defentsak ekainean eta uztailean egingo dira.
- b) Lehen deialdiko defentsak ekainan eta uztailean egingo dira.
- c) Lehen deialdiko defentsak ekainean eta uztailean egingo dira.
- d) Lehen deialdiko defentsak ekainan eta uztailan egingo dira.

183. **Euskaltzaindiak emandako izenak kontuan harturik, zein EZ da zuzena?**

- a) Norvegia
- b) Puerto Rico
- c) Arabia Saudi
- d) Zeelanda Berria

184. **Euskaltzaindiaren arabera, zein EZ da zuzena?**

- a) Ingelesa
- b) Katalana
- c) Alemanera
- d) Greziera

185. **Zein aukera hobetsiko zenuke?**

- a) Kamioizaleak, berriz, zauriak jaso ditu eta ospitalera eraman dute.
- b) Kamioizaleak, berriz, zauriak sufritu ditu eta ospitalera eraman dute.
- c) Kamioizaleak, berriz, zauriak jasan ditu eta ospitalera eraman dute.
- d) Kamioizalea, berriz, zauritu egin da eta ospitalera eraman dute.

186. **Zein aukera hobetsiko zenuke?**

- a) Gidak gaiaren inguruko hainbat material biltzen ditu: araudia, baliabideen gida, literatura, laguntza gidak, eta abar luze bat.
- b) Gidak gaiaren inguruko hainbat material biltzen ditu: araudia, baliabideen gida, literatura, laguntza gidak, eta abar.
- c) Gidak gaiaren inguruko hainbat material biltzen ditu: araudia, baliabideen gida, literatura, laguntza gidak eta abar.
- d) Gidak gaiaren inguruko hainbat material biltzen ditu: araudia, baliabideen gida, literatura, laguntza gidak eta abar luze bat.

187. **Zein aukera hobetsiko zenuke?**

- a) Agiriak nork berak aurkeztu behar ditu.
- b) Agiriak nork berak aurkeztu behar ditu pertsonalki.
- c) Pertsonalki aurkeztu behar dira agiriak.
- d) Agiriak pertsonalki aurkeztu behar ditu eskatzaileak.

188. **Zein aukera hobetsiko zenuke?**

- a) Bigarren gaiari dagokionean, erabateko adostasuna agertu zuen.
- b) Bigarren gaiari dagokionean erabateko adostasuna agertu zuen.
- c) Bigarren gaiari dagokionez erabateko adostasuna agertu zuen.
- d) Bigarren gaiari dagokionez, erabateko adostasuna agertu zuen.

189. **Zein aukera baztertuko zenuke?**

- a) Liskarrak ematen dira neska-mutilen artean.
- b) Liskarrak izaten dira neska-mutilen artean.
- c) Liskarrak gertatzen dira neska-mutilen artean.
- d) Neska-mutilek liskarrak izan ohi dituzte.

190. **Zein baztertuko zenuke?**

- a) Arantzazuko kongresuan finkatu ziren euskara batuaren lehen oinarriak, oinarri hauek idazle gehienek onartu zituztelarik.
- b) Adiskideak etorri direlarik, alde egin duzu.
- c) Elurra ari duelarik ere, aterako gara.
- d) Han bertan zendu zen, sorosleek ez zezaketelarik deusik egin.

191. **Zein da Euskaltzaindiak hobesten duen aukera?**
- a) Bilkura ospatu baino gutxienez hamabost egun lehenago egingo da Osoko Bilkura-rako deialdia.
 - b) Gernikako bonbardaketaren 70. urteurrena ospatuko dute.
 - c) Nire urtebetetzea da eta ospatu nahi dut.
 - d) Bilera Leioan ospatu zen.
192. **Zein aukera hobetsiko zenuke?**
- a) Eusko Jaurlaritzak argi berdea eman zion atzo, asteartez, lau hitzarmen izenpetzeari.
 - b) Eusko Jaurlaritzak argi berdea eman zion atzo, asteartea, lau hitzarmen izenpetzeari.
 - c) Eusko Jaurlaritzak lau hitzarmen izenpetzeko baimena eman zuen atzo, asteartez.
 - d) Eusko Jaurlaritzak lau hitzarmen izenpetzeko baimena eman zuen atzo, asteartea.
193. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? Se podrá utilizar este nombre en la publicidad de otros productos o servicios, a condición de que este otro producto o servicio solo se comercialice en una zona geográfica limitada.**
- a) Izen hori bestelako produktu edo zerbitzuen publizitatean erabili ahalko da, produktu edo zerbitzu hori eremu geografiko mugatu batean merkaturatzearen baldintzapean.
 - b) Izen hori bestelako produktu edo zerbitzuen publizitatean erabili ahalko da, baldin eta produktu edo zerbitzu hori soilik eremu geografiko mugatu batean merkaturatzen bada.
 - c) Izen hori bestelako produktu edo zerbitzuen publizitatean erabiltzeko, produktu edo zerbitzu hori soilik eremu geografiko mugatu batean merkaturatu beharko da.
 - d) Izen hori bestelako produktu edo zerbitzuen publizitatean erabiliko bada, produktu edo zerbitzu hori soilik eremu geografiko mugatu batean merkaturatu beharko da.
194. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? Fue escogido al objeto de representar al IVAP en los tribunales de selección de personal.**
- a) Langileak hautatzeko epaimahaietan IVAPeko ordezkari izateko aukeratu zuten.
 - b) IVAPeko ordezkari izendatu zuten, langileak hautatzeko epaimahaietan aritzeko.
 - c) Langileak hautatzeko epaimahaietan IVAPeko ordezkari izatearen helburuarekin aukeratu zuten.
 - d) IVAPeko ordezkari aukeratu zuten, langileak hautatzeko epaimahaietan aritzeko.
195. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? La patronal de la construcción naval intenta conseguir que estas subvenciones se prolonguen, con el argumento de la competencia.**
- a) Ontzigintzaren patronala diru-laguntza horiek luzatu nahian dabil, sektore lehiakorra izan nahi baitute.
 - b) Ontzigintzaren patronala diru-laguntza horiek luzatu nahian dabil, lehiakortasunaren argudioarekin.
 - c) Sektore lehiakorra izan nahi dutenez, ontzigintzaren patronala diru-laguntza horiek luzatu nahian dabil.
 - d) Sektore lehiakorra izan nahi dute, eta horregatik dabil ontzigintzaren patronala diru-laguntza horiek luzatu nahian.

196. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? Este registro se guardará a bordo y estará accesible en todo momento a efectos de control.**
- a) Zerrenda hori itsasontzian gordeko da, eta edozein unetan kontsultatu ahalko da, kontrolaren ondorioetarako.
 - b) Zerrenda hori itsasontzian gordeko da, eta edozein unetan kontsultatu ahalko da, harrapakin kopurua kontrolatu ahal izateko.
 - c) Zerrenda hori itsasontzian gordeko da, eta edozein unetan kontsultatu ahalko da, harrapakin kopurua kontrolatu nahian.
 - d) Zerrenda hori itsasontzian gordeko da, eta edozein unetan kontsultatu ahalko da, harrapakin kopurua kontrolatzeko asmoz.
197. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? Los gastos aumentaron a causa del incremento de los gastos de defensa.**
- a) Gastuak handitu egin ziren, defentsa-gastuen igoeraren kausaz.
 - b) Gastuak handitu egin ziren, defentsa-gastuak handitu izanagatik.
 - c) Gastuak handitu egin ziren, defentsa-gastuak handitu izana medio.
 - d) Gastuak handitu egin ziren, defentsa-gastuak handitu izana kausa.
198. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? A consecuencia de las renunciaciones presentadas, se ha modificado la lista definitiva de aspirantes.**
- a) Batek baino gehiagok uko egin duelako, aldatu egin da izangaien behin betiko zerrenda.
 - b) Aldatu egin da izangaien behin betiko zerrenda, batek baino gehiagok uko egin duelako.
 - c) Aurkeztutako ukoen ondorioz, aldatu egin da izangaien behin betiko zerrenda.
 - d) Aldatu egin da izangaien behin betiko zerrenda, hainbatek uko egin duelako.
199. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? A efectos de evitar inundaciones, el ayuntamiento llevará a cabo una importante inversión.**
- a) Uholdeak saihestearen ondorioetarako, udalak inbertsio handia egingo du.
 - b) Uholdeak saihesteko helburuaz, udalak inbertsio handia egingo du.
 - c) Uholdeak saihesteko, udalak inbertsio handia egingo du.
 - d) Uholdeak saihesteko asmoz, udalak inbertsio handia egingo du.
200. **Aukeratu egokiena iruditzen zaizuna:**
- a) Bilera egin asmoz etorri zen Gasteizera.
 - b) Bilera egiteko asmoz etorri zen Gasteizera.
 - c) Bilera egitearen asmoarekin etorri zen Gasteizera.
 - d) Bilera egitearen asmoetarako etorri zen Gasteizera.
201. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? El plazo de ejecución de las obras podrá ampliarse a petición del interesado.**
- a) Obrak egiteko epea luzatu egin ahalko da, interesdunaren eskariz.
 - b) Obrak egiteko epea luzatu egin ahalko da, interesdunak hala eskatzen badu.
 - c) Obrak egiteko epea luzatuko bada, interesdunak eskatu egin behar du.
 - d) Obrak egiteko epea luzatu egin ahalko da, interesdunak hala eskatuta.

202. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? Le dijo la verdad a su madre, a riesgo de que se enfadara.**
- a) Egia esan zion amari, haserretuko zela uste bazuen ere.
 - b) Egia esan zion amari, haserretzearen arriskuarekin.
 - c) Jakin bazekien ama haserretu egin zitekeela; hala ere, egia esan zion.
 - d) Egia esan zion amari, jakin bazekien arren haserretu egin zitekeela.
203. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? A tenor de la información del consejero de economía, la inflación es un simple fenómeno monetario.**
- a) Ekonomia sailburuak esanaren arabera, moneta-fenomeno huts bat da inflazioa.
 - b) Ekonomia sailburuak esan duenez, moneta-fenomeno huts bat da inflazioa.
 - c) Ekonomia sailburuaren baieztapenaren arabera, moneta-fenomeno huts bat da inflazioa.
 - d) Ekonomia sailburuak esan duena kontuan hartuz, moneta-fenomeno huts bat da inflazioa.
204. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? Un saludo, junto con mis deseos de una pronta recuperación.**
- a) Agur bat, laster sendatuko zarelako nahiarekin.
 - b) Ahalik eta lasterren sendatuko zarelakoan, agur t'erdi.
 - c) Lehenbailehen sendatuko zarelakoan, agur t'erdi.
 - d) Laster sendatuko zarelakoan, agur t'erdi.
205. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? Con el objetivo de estabilizar los precios, se han tomado decisiones importantes.**
- a) Prezioak egonkortzeko, erabaki garrantzitsuak hartu dira.
 - b) Prezioak egonkortu daitezten, erabaki garrantzitsuak hartu dira.
 - c) Prezioak egonkortzeko asmoz, erabaki garrantzitsuak hartu dira.
 - d) Prezioak egonkortzeko helburuarekin, erabaki garrantzitsuak hartu dira.
206. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? Empezaron a realizar el análisis con la dificultad de obtener indicadores internacionalmente comparables.**
- a) Azterketa egiten hasi ziren, nazioartean erkagarriak diren adierazleak lortzearen zailtasunarekin.
 - b) Ez zekiten nazioartean erkagarriak diren adierazleak lortuko zituzten; hala eta guztiz ere, azterketa egiten hasi ziren.
 - c) Azterketa egiten hasi ziren, nahiz eta ez zekiten nazioartean erkagarriak diren adierazleak lortuko zituzten.
 - d) Nazioartean erkagarriak diren adierazleak lortuko ote zituzten jakin ez arren, azterketa egiten hasi ziren.

207. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? Aralar de Asparrena se presenta con voluntad de potenciar los cauces de participación ciudadana.**
- a) Herritarren parte-hartze bideak sustatzeko asmoarekin aurkeztu da Asparrenako Aralar.
 - b) Herritarren parte-hartze bideak sustatzearen borondatearekin aurkeztu da Asparrenako Aralar.
 - c) Herritarren parte-hartze bideak sustatzeko aurkeztu da Asparrenako Aralar.
 - d) Herritarren parte-hartze bideak sustatze aldera aurkeztu da Asparrenako Aralar.
208. **Esaldi honen zein itzulpen baztertuko zenuke? Los habitantes se están movilizando con motivo de las elecciones.**
- a) Hauteskunderen inguruko kexa agertzeko asmoarekin, herritarrak mobilizazioak egiten ari dira.
 - b) Herritarrak mobilizazioak egiten ari dira hauteskunderak direlako.
 - c) Hateskunderak direla eta, herritarrak mobilizazioak egiten ari dira.
 - d) Herritarrak mobilizazioak egiten ari dira hauteskunderen kariaz.
209. **Zein da zuzena?**
- a) Patxiri begiratu, eta hartaz barre egiten hasi zen.
 - b) Patxiri begiratu, eta honetaz barre egiten hasi zen.
 - c) Patxiri begiratu, eta berea barre egiten hasi zen.
 - d) Patxiri begiratu, eta hurataz barre egiten hasi zen.
210. **Zein da zuzena?**
- a) Begien aurrean dago ikuskizuna, baina apur bat saiatu behar da hau ikusteko.
 - b) Begien aurrean dago ikuskizuna, baina apur bat saiatu behar da bera ikusteko.
 - c) Begien aurrean dago ikuskizuna, baina apur bat saiatu behar da berau ikusteko.
 - d) Begien aurrean dago ikuskizuna, baina apur bat saiatu behar da hura ikusteko.
211. **Zein aukera baztertuko zenuke?**
- a) 17 urterekin seminarioan sartu zen. Hemen bost urte pasatu zituen.
 - b) 17 urterekin seminarioan sartu zen. Han bost urte pasatu zituen.
 - c) 17 urterekin seminarioan sartu zen. Bertan bost urte pasatu zituen.
 - d) 17 urterekin seminarioan sartu zen. Hantxe pasatu zituen bost urte.
212. **Zein aukera baztertuko zenuke?**
- a) Realean hazi eta egindako jokalaria da, nahiz eta bere egunean, tokirik ez zuela eta, kanpora egin behar izan zuen.
 - b) Realean hazi eta egindako jokalaria da, nahiz eta garai batean, tokirik ez zuela eta, kanpora egin behar izan zuen.
 - c) Realean hazi eta egindako jokalaria da, nahiz eta sasoi batean, tokirik ez zuela eta, kanpora egin behar izan zuen.
 - d) Realean hazi eta egindako jokalaria da, nahiz eta bere garaian, tokirik ez zuela eta, kanpora egin behar izan zuen.

213. **Zein aukera baztertuko zenuke?**

- a) Gure lorategietan, txantxangorria, zozoa eta antzeko txoriak ibiltzen dira.
- b) Gure lorategietan, zenbait txori klase ibiltzen dira, hala nola txantxangorria eta zozoa.
- c) Gure lorategietan, txantxangorria eta zozoa bezalako txoriak izaten dira.
- d) Gure lorategietan, zenbait txori klase ibiltzen dira; esate baterako, txantxangorria eta zozoa.

214. **Zein aukera baztertuko zenuke?**

- a) Gonbidatuek hitz egin nahi zuten bitartean, aurkezleak nahiago zuen saioa musikaz osatu.
- b) Gonbidatuek hitz egin nahi zuten, baina aurkezleak nahiago zuen saioa musikaz osatu.
- c) Gonbidatuek hitz egin nahi zuten arren, aurkezleak saioa musikaz osatu zuen.
- d) Gonbidatuek hitz egin nahi zuten eta aurkezleak, berriz, nahiago zuen saioa musikaz osatu.

215. **Zein aukera baztertuko zenuke?**

- a) Hiru mendigoizale hil dira Anboton, tontorretik beherantz zetozela.
- b) Bi ikusle futbol-zelaira sartu dira, jokalariai penaltiaren jaurtiketa prestatzen ari zirelarik.
- c) Getariako portuan maniobrak egiten ari zirela, balea bat ikusi dute.
- d) EAEko gizonezkoen artean minbizia da heriotza gehien eragiten duena, emakumeak heriotzara eramaten dituen bigarren gaitz nagusia delarik.

216. **Zein aukera baztertuko zenuke?**

- a) Irakasle guztiak kalera irten dira, lan-baldintzak hobetzea eskatuz.
- b) Irakasle guztiak kalera irten dira, lan-baldintzak hobetzea eskatzera.
- c) Dei bat jaso du ETArenean, Urrietako Santa Barbara auzoan bi bonba jarri dituztela esanez.
- d) Atzerritik etorritako taldeek Portugaleteko kaleak zeharkatu dituzte, euren doinuak kantatuz eta dantzatuz.

217. **Zein baztertuko zenuke?**

- a) 14 urte eta gero, 2009ko aurrekontuen proiektuak zorpetzeko helegiteaz baliatuko dira.
- b) 14 urte igaro eta gero, 2009ko aurrekontuen proiektuak zorpetzeko helegiteaz baliatuko dira.
- c) 14 urte igaro direnean, 2009ko aurrekontuen proiektuak zorpetzeko helegiteaz baliatuko dira.
- d) 14 urte igaro dira eta 2009ko aurrekontuen proiektuak zorpetzeko helegiteaz baliatuko dira.

218. **Zein baztertuko zenuke?**

- a) Zirriborroak egiterakoan sentitzen den atsegina.
- b) Zirriborroak egiterakoan sentitzen duen plazera.
- c) Zirriborroak egiterakoan plazera.
- d) Zirriborroak egiterakoan sumatzen den plazera.

219. **Zein baztertuko zenuke?**

- a) Eguraldi txarra izan da espedizioak huts egitearen arrazoia.
- b) Eguraldi txarra dela kausa egin du huts espedizioak.
- c) Eguraldi txarra dela medio egin du huts espedizioak.
- d) Eguraldi txarrak eraginda egin du huts espedizioak.

220. **Zein da zuzena?**

- a) Jendea heltzen den heinean betetzen dira mahaiak.
- b) Lehen emaitzak heltzen diren heinean berritzen joango gara.
- c) Zorrak handiagotu heinean akzioak jaitsi egiten dira.
- d) Hatsa galtzeko heinean ginela medikua azaldu zen.

221. **Zein baztertuko zenuke?**

- a) Bilbon autobide baten eraikuntzak gatazka bat sortu du.
- b) Bilbon autobide bat eraiki dute, eta horrek gatazka bat sortu.
- c) Bilbon autobide bat eraiki dute, eta, horren ondorioz, gatazka bat sortu da.
- d) Bilbon autobide bat eraiki dutenez, gatazka bat sortu da.

222. **Zein baztertuko zenuke?**

- a) Egun, egoera ez da egokia arazoa konpontzeko.
- b) Egun, egoera kaxkarra da arazoa konpontzeko.
- c) Egun, ez dira baldintzak ematen arazoa konpontzeko.
- d) Egun, egoera txarra dela eta, arazoa ezin da konpondu.

223. **Zein baztertuko zenuke?**

- a) Zer da sasoian egotea?
- b) Zer da forman egotea?
- c) Zer da sasoiko egotea?
- d) Zer da gorputzaldi onean egotea?

224. **Zein baztertuko zenuke?**

- a) Mendizabalek eman du jakitera.
- b) Mendizabalek jakinarazi du.
- c) Mendizabalek eman du aditzera.
- d) Mendizabalek esan du.

225. **Zer da itzulpen-memoria bat?**

- a) Datu-base bat da, jatorrizko eta xede hizkuntzako testuak esaldika lerrokatuta biltzen dituena.
- b) Jatorrizko testuen eta horien itzulpenen biltegi den karpeta bat da.
- c) Hizkuntza baliabideak biltzen dituen tresna bat da.
- d) Itzulpenak egiteko baliatzen den testu-prozesatzaile bat da.

226. **Zer da ordenagailuz lagundutako itzulpena?**

- a) Hiztegi elektronikoak baliatuz egiten den itzulpena da.
- b) Itzulpen-memoriak baliatzen dituzten tresnen bitartez egiten den itzulpena da.
- c) Ordenagailua erabiliz egiten den itzulpena da.
- d) Itzulpen automatikoen eginiko itzulpena da.

227. **Zer da itzulpen-unitate bat?**

- a) Jatorrizko esaldi batek eta haren baliokidea den xede-hizkuntzako esaldiak osatzen duten unitatea, itzulpen-memorian biltzen dena.
- b) Jatorrizko esaldi bat da, itzulpen-memorian biltzen dena.
- c) Itzuliriko esaldi bat da, itzulpen-memorian biltzen dena.
- d) Itzuliriko dokumentu bat da.

228. **Zein da itzulpen-memoria estandar baten luzapena?**

- a) Txt
- b) Tmx
- c) Xml
- d) Doc

229. **Zer luzapen du SDL Trados Studioren itzulpen-memoria batek eskuarki?**

- a) Txt
- b) Tmx
- c) Sdltm
- d) xml

230. **Zer da Euskalbar?**

- a) Webgune batean eskura dugun hiztegi-bilduma bat da.
- b) Nabigatzailean instalatzen den gehigarri edo plug-in bat da, hizkuntza kontsultarako hainbat baliabide eskaintzen dituena (hiztegiak, corpusak, banaketa-zerrendak, zuzentzaile ortografikoa eta abar).
- c) Online kontsulta daitekeen hiztegi bat da.
- d) Euskarazko hizkuntza kontsultarako tresnen bilatzailea da.

231. **Zer da corpus bat?**

- a) Irizpide jakin bati loturiko testuak, testu-bildumak edo datuak biltzen dituen datu-base elektronikoa da.
- b) Testu bilduma bat da, edozein delarik ere testu horien formatua.
- c) Sarean eskuragarri dauden testuez osaturiko bilduma da.
- d) Lexikoa aztertzeko baliatzen den tresna bat da.

232. **Zer da corpus paralelo bat?**

- a) Bi hizkuntzatan dauden testuak biltzen dituen corpusa da.
- b) Bi hizkuntzatan ala gehiagotan dauden testuak biltzen dituen testu-bilduma da.
- c) Aldi berean sorturiko testuak biltzen dituen corpusa da.
- d) Jatorrizko testuak eta horien itzulpenak biltzen dituen corpusa da.

233. **Zer da itzulpen automatikoa?**

- a) Interneteko baliabideak kontsultatuz egiten den itzulpena da.
- b) Hiztegi elektronikoak kontsultatuz egiten den itzulpena da.
- c) Gizakiak esku hartu gabe jatorrizko-hizkuntza batetik xede-hizkuntza batetara egiten den itzulpena da.
- d) Ordenagailuz lagunduriko itzulpen programez egiten den itzulpena da.

234. **Zein itzultzaile automatikok eskaintzen dute euskarara edo euskaratik itzultzeko aukera?**

- a) Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile automatikoak, Opentradek eta Reversok.
- b) Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile automatikoak, Googlek eta Reversok.
- c) Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile automatikoak eta Opentradek.
- d) Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile automatikoak, Opentradek eta Googlek.

235. **Zer motatako itzultzaile automatikoak daude merkatuan?**

- a) Itzultzaile automatikoak eta ordenagailuz lagunduriko itzulpen tresnak.
- b) Estatistikoak eta erregeletan oinarriturikoak.
- c) Erregeletan oinarriturikoak eta neuronalak.
- d) Estatistikoak, erregeletan oinarriturikoak eta neuronalak.

236. **Itzulpen automatikoari buruzko ondorengo zein baieztapen da okerra?**

- a) Itzulgaiaren ezaugarriari egokituriko itzultzaile automatiko batek produktibitatea igo dezake itzulpen-prozesuan.
- b) Terminologia koherentzia mantentzen lagunduko du itzulgaiaren beharretara egokituriko itzultzaile automatiko bat erabiliz gero.
- c) Itzultzaile automatiko batek eskaintzen duen emaitza bere horretan zuzena izango da eta berrikusi gabe argitara liteke.
- d) Fidagarritasun mugatua eskaintzen dute oraindik orain itzultzaile automatikoek eta hizkuntza bikotearen arabera emaitza hobea ala kaskarragoa izango da.

237. **Estatistiketan oinarrituriko itzulpen automatikoa zertan oinarritzen da?**
- a) Corpus eleanitzetatik erauzitako eredu estatistikoetan.
 - b) Ezagutza linguistikoa adierazten duten erregelak erabiltzen ditu itzulpen proposamena egiteko.
 - c) Transferentziazko metodoak erabiltzen ditu itzulpen automatikoa sortzeko.
 - d) Interlingua bidezko itzulpenean.
238. **Zer kontsulta daiteke EHUko Egungo Testuen Corpusean?**
- a) XXI. mendean liburuetan eta prentsan argitaraturiko testuak.
 - b) XX. eta XXI. mendeetan argitaraturiko euskal testu guztiak.
 - c) XX. eta XXI. mendeetan liburuetan eta prentsan argitaraturiko testuak.
 - d) XVI. mendetik gaur arte euskal liburuetan argitaraturiko testuak.
239. **Zer testu mota biltzen ditu EHUko Euskal Klasikoen Corpusak?**
- a) XVI. mendean hasi eta 1975. urtera arteko liburuetako testuak.
 - b) XVI. mendean hasi eta gaur egunera arteko liburuetako testuak.
 - c) XX. mendean argitaratutako liburuetako testuak.
 - d) XX. eta XXI. mendeetan argitaratutako liburuetako testuak.
240. **Zer motatako testuak biltzen ditu ZIO Corpusak?**
- a) Euskaraz argitaratu diren zientziari loturiko aldizkarietako testuak.
 - b) Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratu dituen zientziaren dibulgazioko liburuetako testuak.
 - c) Elhuyarrek argitaratu dituen zientzia dibulgazioko liburuetako testuak.
 - d) Euskal Herriko Unibertsitateak argitaraturiko liburuetako testuak.
241. **Zer motatako corpora da CREA?**
- a) Gaztelaniazko corpus sinkronikoa, Espainian sorturiko testu idatziak biltzen dituen.
 - b) Gaztelaniazko corpus sinkronikoa, Espainian zein Hegoamerikako hainbat herrialdetan sorturiko testu idatziak biltzen dituen.
 - c) Gaztelaniazko corpus erreferentziala, Espainian zein Hegoamerikako hainbat herrialdetan sorturiko idatzizko testuak biltzen dituen.
 - d) Gaztelaniazko corpus erreferentziala, Espainian zein Hegoamerikako hainbat herrialdetan sorturiko idatzizko zein ahozko testuak biltzen dituen.
242. **Zer da CORDE?**
- a) XXI. mendera arteko gaztelaniazko testuak biltzen dituen corpus sinkronikoa.
 - b) XX. mendeko gaztelaniazko testuak biltzen dituen corpus diakronikoa.
 - c) 1974ra arte gaztelaniaz idatziriko testuak biltzen dituen corpus diakronikoa.
 - d) 1974ra arte gaztelaniazko testuak, idatzizkoak zein ahozkoak, biltzen dituen corpus diakronikoa.

243. **Zer da lokalizazioa?**

- a) Produktu bat edo zerbitzu bat nazioartekotzea merkatu ezberdinetan zabaltzeko.
- b) Produktu bat edo zerbitzu bat merkatu desberdinetan egokiak izan daitezen moldatzea hizkuntzari zein alderdi kulturalari dagokionez.
- c) Software edo webgune bat hainbat xede hizkuntzatarara itzultzea.
- d) Software edo webgune bat hainbat herrialdetan merkaturatzea.

244. **Zer ezberdintasun dago itzulpenaren eta lokalizazioaren artean?**

- a) Biak elkarren baliokide dira.
- b) Lokalizazioan egokitzapen kulturala egiten da; itzulpenean ez.
- c) Herrialde, eremu edo merkatu espezifiko batetara egokitzen da produktu bat lokalizazioan, eta horretarako zenbait irizpide kultural, idiomatiko zein ekonomiko moldatzen dira. Itzulpena lokalizazio prozesu osoaren zati bat da.
- d) Itzulpenean eta lokalizazioan bietan dago egokitzapen kulturala, baina lokalizazioan egokitzapen ekonomikoa ere egiten da.

245. **Zer ezaugarri ditu internazionalizazioak?**

- a) Produktu bat lokalizatzeko egin beharreko urrats da, produktu bat merkatu berrietara egokitzeko. Lokalizazio prozesuaren amaieran egiten da, produktua merkaturatu aurretik.
- b) Lokalizazioaren kontrako prozesua da.
- c) Produktu bat lokalizatzeko egin beharreko urrats da, produktu bat merkatu berrietara egokitzeko. Lokalizazio prozesuaren hasieran egiten da, diseinatzerakoan.
- d) Produktu bat nazioartean zabaltzeko prozesua da, eta alderdi ekonomikoari loturiko elementuak egokitzean datza.

246. **Zer da postedizioa?**

- a) OLI tresna batean eginiko itzulpena berrikusteko zeregina da.
- b) Beste norbaitek eginiko itzulpena zuzentzeko prozesua da.
- c) Makina batek egin duen itzulpena txukuntzeko lana da. Pertsona batek egin behar du.
- d) Itzuliriko testua bezeroari bidali aurretik egin beharreko azken irakurraldia da.

247. **Ondorengoetatik zeintzuk dira OLI tresnak?**

- a) Wordfast, Google Translate eta SDL Trados Studio.
- b) Wordfast, SDL Trados Studio eta Excel.
- c) SDL Trados Studio, MemoQ eta Google Translate.
- d) SDL Trados Studio, MemoQ eta Wordfast.

248. **Zer testu biltzen ditu EIZIE Corpusak?**

- a) EIZIE elkartearen testu mota anitzak (SENEZ aldizkaria, Itzultzaile Aitzindariak bilduma eta abar).
- b) Literatura Unibertsala bildumako liburuen testuak: euskarazkoak.
- c) Literatura Unibertsala bildumako liburuen testuak: euskarazkoak zein jatorri testuetakoak.
- d) EIZIEk sustatutako literatur liburuetakoko testuak (Literatura Unibertsala, Itzultzaile Aitzindariak eta beste).

249. **Zein hizkuntzatako testuak biltzen ditu Consumer Corpus eleanitzak?**
- a) Euskarazkoak eta gaztelaniazkoak.
 - b) Euskarazkoak, gaztelaniazkoak, frantsesezkoak eta ingelesezkoak.
 - c) Euskarazkoak, gaztelaniazkoak, katalanezkoak eta galegozkoak.
 - d) Euskarazkoak, gaztelaniazkoak eta ingelesezkoak.
250. **Zer motatako corpora da EHUskaratuak?**
- a) EHUko Euskara Zerbitzuak itzuliriko testuak, hainbat jakintza-arlotakoak. Corpuseko testuak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez daude.
 - b) EHUko Euskara Zerbitzuak itzuliriko testuak, zientziaren arlokoak. Corpuseko testuak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez daude.
 - c) EHUko Euskara Zerbitzuak itzuliriko testuak, hainbat jakintza-arlotakoak. Corpuseko testuak euskaraz daude.
 - d) EHUko Euskara Zerbitzuak itzuliriko testuak, zientziaren alorrekoak. Corpuseko testuak euskaraz eta gaztelaniaz daude.
251. **OLI tresna batekin lanean ari garelarik, fuzzy match edo kointzidentzia partzial bat ageri zaigu segmentu batean. Nolakoa da segmentu hori?**
- a) Itzulpen-memorian gordeta dagoen beste segmentu baten berdin-berdina.
 - b) Itzulpen-memorian gordeta dagoen beste batekin antzekotasun maila handia duena.
 - c) Itzulpen-memorian gordeta ez dago segmenturik antzekotasun maila nahikorik duenik.
 - d) Hutsetik itzuli beharreko segmentua.
252. **OLI tresna batekin lanean ari garelarik, kointzidentzia totala ageri zaigu segmentu batean. Nolakoa da segmentu hori?**
- a) Itzulpen-memorian gordeta dagoen beste segmentu baten berdin-berdina.
 - b) Itzulpen-memorian gordeta dagoen beste batekin antzekotasun maila handia duena.
 - c) Itzulpen-memorian gordeta ez dago segmenturik antzekotasun maila nahikorik duenik.
 - d) Hutsetik itzuli beharreko segmentua.
253. **Zer da ItzuL?**
- a) Itzulpen merkatuko lan-eskaintzak zintzilikatzeko iragarki-taula da.
 - b) Euskal itzultzaile eta interpreteentzako baliabideen biltegia da.
 - c) EIZIEk sorturiko posta zerrenda, eguneroko lanean sortu ohi diren arazoak beste lankide itzultzaileen laguntzaz konpondu eta eztabaidatzeko foro elektronikoa eskaintzen duena.
 - d) EIZIEk sorturiko kontsulta eremua, eguneroko lanean sortzen diren arazoak EIZIEko langileek erantzuteko foroa.

254. **Zer egiten du OLI tresna batek itzultzaileak kointzidentzia partziala edo fuzzy match moduko segmentu bateko xede segmentua zuzentzen duenean?**
- a) Itzulpen-memorian gordeta zegoen itzulpen-unitatea ezabatu eta berriarekin ordezkatzeko du.
 - b) Itzulpen-memorian gordeta zegoen itzulpen-unitatea mantendu eta zuzendutakoarekin beste itzulpen-unitate bat sortuko du.
 - c) Ez du eguneraketarik egingo.
 - d) Esaldia testuan aldatu bai baina itzulpen-unitate berria ez du memorian gordeko.
255. **Zer motatako OLI tresnak daude merkatuan?**
- a) Ingurune beregaina dutenak eta testu-prozesatzaileetan integratzen direnak.
 - b) Testu prozesatzaileetan-integratzen direnak.
 - c) Ingurune beregaina dutenak, testu-prozesatzaileetan integratzen direnak eta nabigatzailean erabiltzen direnak.
 - d) Ingurune beregaina dutenak eta nabigatzailean erabiltzen direnak.
256. **Noiz ez litzateke beharrezkoa OLI tresna bat baliatzea itzulpen-prozesuan?**
- a) Testu errepikakorra den kasuetan.
 - b) Terminologia koherentea behar duen testuetan.
 - c) Kalitate irizpide batzuk betetzea derrigorrezkoa den kasuetan.
 - d) Testuko esaldiak elkarrengandik oso ezberdinak direnetan.
257. **Zertarako baliatzen dira iragazkiak OLI tresnetan?**
- a) Itzulpen-memoria baten barruan irizpide jakin batzuen arabera bilaketak egiteko.
 - b) Itzulpen-memorian uneko itzulpen-unitatearen berdindunak diren unitateak bistaratzeko.
 - c) Terminoak identifikatu eta glosarioan gehitzeko.
 - d) Itzulpena amaitutakoan behin betiko testu amaitua sortzeko.
258. **Me preguntaron por tí esaldiaren euskararako itzulpenon artean, zein da okerra?**
- a) Zutaz galdetu zidaten.
 - b) Zuri buruz galdetu zidaten.
 - c) Zure galdea egin zidaten.
 - d) Zugatik galdetu zidaten.
259. **Zer da Hobelex?**
- a) Euskarazko zuzentzaile ortografikoa.
 - b) Euskaraz akats ortografikorik gabe eta lexiko zuzen eta eguneratuarekin idazten laguntzen duen tresna.
 - c) Euskarazko lexikoa egoki erabiltzeko tresna, online zein plugin bitartez erabil daitekeena.
 - d) Gramatika akatsak zuzentzeko tresna, online zein plugin bitartez erabil daitekeena.

260. **Esan ondorengo esaldi hauetan zein den esaldi okerra:**
- a) Gaur, Ordiziako azokan, piperrak garestitu egin dira. Baita ere ilarrak.
 - b) Gaur, Ordiziako azokan, piperrak garestitu egin dira. Baita ilarrak ere.
 - c) Gaur, Ordiziako azokan, piperrak garestitu egin dira, eta ilarrak ere bai.
 - d) Gaur, Ordiziako azokan, piperrak eta ilarrak garestitu dira.
261. **Aukeratu ondorengo hauetan zein den aukera baztergarria:**
- a) Eguraldi txarragatik egin du huts espedizioak.
 - b) Eguraldi txarra dela medio egin du huts espedizioak.
 - c) Eguraldi txarra izan da espedizioak huts egitearen arrazoia.
 - d) Eguraldi txarra tarteko egin du huts espedizioak.
262. **Zer da Itzulterm?**
- a) Itzulpen-memoriak kudeatzeko tresna.
 - b) Itzulpen-proiektuak kudeatzeko tresna.
 - c) Itzulpen-memoretatik lexiko elebiduna erauzteko tresna.
 - d) Itzulpen-memoriak esportatzeko tresna.
263. **UPV/EHUren izen ofiziala erabiltzeko UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoaren arabera, dokumentu batean unibertsitatearen izena lehen aldiz agertzen denean, nola idatziko da?**
- a) Euskal Herriko Unibertsitatea, testua euskaraz badago, edo Universidad del País Vasco, testua gaztelaniaz badago.
 - b) Euskal Herriko Unibertsitatea, edozein delarik ere testuaren hizkuntza.
 - c) Universidad del País Vasco, edozein delarik ere testuaren hizkuntza.
 - d) Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.
264. **UPV/EHUren izen ofiziala erabiltzeko UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoaren arabera, dokumentu batean unibertsitatearen izena lehen aldiz agertu ostean, gerora agertzen den gainerako kasuetan, nola idatziko da?**
- a) Euskal Herriko Unibertsitatea, testua euskaraz badago, edo Universidad del País Vasco, testua gaztelaniaz badago.
 - b) Euskal Herriko Unibertsitatea, edozein delarik ere testuaren hizkuntza.
 - c) Universidad del País Vasco, edozein delarik ere testuaren hizkuntza.
 - d) Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.
265. **UPV/EHUren izen ofiziala erabiltzeko UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoaren arabera, dokumentu batean unibertsitatearen izena sigla bidez eman behar bada, nola agertuko dira sigla horiek?**
- a) EHU.
 - b) UPV.
 - c) UPV/EHU.
 - d) UPV-EHU.

266. **Hautatu ondorengo esaldietan zein dagoen egoki idatzita, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoaren arabera:**
- a) UPV/EHUren estatutuen 190. artikuluan ezarritako izapideak bete ondoren. Errektorego honek, estatutu horiek eman dizkioten ahalmenez baliatuz, hau EBAZTEN DU:
 - b) UPV/EHUren Estatutuen 190. artikuluan ezarritako izapideak bete ondoren. Errektorego honek, Estatutu horiek eman dizkioten ahalmenez baliatuz, hau EBAZTEN DU:
 - c) UPV/EHUren Estatutuen 190. artikuluan ezarritako izapideak bete ondoren. Errektorego honek, estatutu horiek eman dizkioten ahalmenez baliatuz, hau EBAZTEN DU:
 - d) UPV/EHUren estatutuen 190. artikuluan ezarritako izapideak bete ondoren. Errektorego honek, Estatutu horiek eman dizkioten ahalmenez baliatuz, hau EBAZTEN DU:
267. **Hautatu ondorengo esaldietan zein dagoen egoki idatzita, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoaren arabera:**
- a) Ikastegi honetako fakultateko batzarra ikastetxeko administrazio eta gobernu organo gorenaren da eta batzar horren erabakiak, dagokion gaian, Ikastetxeko beste organo eta kideak lotzen ditu.
 - b) Ikastegi honetako Fakultateko Batzarra ikastetxeko administrazio eta gobernu organo gorenaren da eta batzar horren erabakiak, dagokion gaian, Ikastetxeko beste organo eta kideak lotzen ditu.
 - c) Ikastegi honetako Fakultateko Batzarra ikastetxeko administrazio eta gobernu organo gorenaren da eta Batzar horren erabakiak, dagokion gaian, Ikastetxeko beste organo eta kideak lotzen ditu.
 - d) Ikastegi honetako Fakultateko batzarra ikastetxeko administrazio eta gobernu organo gorenaren da eta batzar horren erabakiak, dagokion gaian, Ikastetxeko beste organo eta kideak lotzen ditu.
268. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoaren arabera:**
- a) Azalean jar daitezke, EHU/UPVren sinboloarekin batera, master eta doktorego eskolako sinboloa, tesi zuzendarien izenak eta, tutorekidetzan egindako tesien kasuan, bi unibertsitateen sinboloak.
 - b) Azalean jar daitezke, EHU/UPVren sinboloarekin batera, Master eta Doktorego Eskolako sinboloa, tesi zuzendarien izenak eta, tutorekidetzan egindako tesien kasuan, bi unibertsitateen sinboloak.
 - c) Azalean jar daitezke, UPV/EHUren sinboloarekin batera, Master eta Doktorego Eskolako sinboloa, tesi zuzendarien izenak eta, tutorekidetzan egindako tesien kasuan, bi unibertsitateen sinboloak.
 - d) Azalean jar daitezke, UPV/EHUren sinboloarekin batera, Master eta Doktorego eskolako sinboloa, tesi zuzendarien izenak eta, tutorekidetzan egindako tesien kasuan, bi unibertsitateen sinboloak.

269. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoaren arabera:**
- a) Arautegi hau indarrean sartzen denean indargabetuta geratuko dira Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen arautegia eta Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolaren arautegia.
 - b) Arautegi hau indarrean sartzen denean indargabetuta geratuko dira Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen Arautegia eta Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolaren Arautegia.
 - c) Arautegi hau indarrean sartzen denean indargabetuta geratuko dira Filosofia eta hezkuntza zientzien fakultatearen arautegia eta Donostiako Irakasleen unibertsitate eskolaren arautegia.
 - d) Arautegi hau indarrean sartzen denean indargabetuta geratuko dira Filosofia eta Hezkuntza Zientzien fakultatearen arautegia eta Donostiako Irakasleen unibertsitate eskolaren arautegia.
270. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoaren arabera:**
- a) UPV-EHUUn gutxienez 10 urte lanean daramatzan edozein pertsona izan daiteke Aldezle, eta Errektoreordeen pareko estatusa izango du.
 - b) UPV/EHUUn gutxienez 10 urte lanean daramatzan edozein pertsona izan daiteke Aldezle, eta Errektoreordeen pareko estatusa izango du.
 - c) UPV/EHUUn gutxienez 10 urte lanean daramatzan edozein pertsona izan daiteke aldezle, eta Errektoreordeen pareko estatusa izango du.
 - d) UPV/EHUUn gutxienez 10 urte lanean daramatzan edozein pertsona izan daiteke aldezle, eta errektoreordeen pareko estatusa izango du.
271. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoaren arabera:**
- a) Antolaketari eta kudeaketari dagokienez, lan honen lehenengo zatian hiru campusetako Zuzendaritza Taldeen eta haien Campuseko Batzar eta Batzorde Iraunkorren osaera aztertzen dira.
 - b) Antolaketari eta kudeaketari dagokienez, lan honen lehenengo zatian hiru Campusetako Zuzendaritza Taldeen eta haien Campuseko Batzar eta Batzorde Iraunkorren osaera aztertzen dira.
 - c) Antolaketari eta kudeaketari dagokienez, lan honen lehenengo zatian hiru campusetako Zuzendaritza Taldeen eta haien campuseko batzar eta batzorde iraunkorren osaera aztertzen dira.
 - d) Antolaketari eta kudeaketari dagokienez, lan honen lehenengo zatian hiru campusetako zuzendaritza taldeen eta haien campuseko batzar eta batzorde iraunkorren osaera aztertzen dira.

272. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoen arabera:**
- a) Euskal Ikasketetako Graduako ikasleek aukera izango dute euskara eta euskal kultura sakontasunez ezagutzeko.
 - b) Euskal ikasketetako graduako ikasleek aukera izango dute euskara eta euskal kultura sakontasunez ezagutzeko.
 - c) Euskal Ikasketetako Graduaren ikasleek aukera izango dute euskara eta euskal kultura sakontasunez ezagutzeko.
 - d) Euskal ikasketetako graduaren ikasleek aukera izango dute euskara eta euskal kultura sakontasunez ezagutzeko.
273. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoen arabera:**
- a) 2007ko abenduaren 28ko erabakia, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko plantillan administrazio laguntzaileen eskalako behin-behineko funtzionario bat izendatzeko dena.
 - b) Erabakia, 2007ko abenduaren 28koa, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko plantillan administrazio laguntzaileen eskalako behin-behineko funtzionario bat izendatzeko dena.
 - c) Erabakia, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, 2007ko abenduaren 28koa, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko plantillan administrazio laguntzaileen eskalako behin-behineko funtzionario bat izendatzeko dena.
 - d) Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen erabakia, 2007ko abenduaren 28koa, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko plantillan administrazio laguntzaileen eskalako behin-behineko funtzionario bat izendatzeko dena.
274. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoen arabera:**
- a) Ikasleek Master eta Doktorego Eskolan eman beharko dute izena. MDEk onartutako zerrenda argitaratuko du eta hortik aurrera jarraitu beharreko aginduak eman-go zaizkie izen ematea osatzeko.
 - b) Ikasleek Master eta Doktorego Eskolan eman beharko dute izena. MDEk onartutako zerrenda argitaratuko du eta hortik aurrera jarraitu beharreko aginduak eman-go zaizkie izen ematea osatzeko.
 - c) Ikasleek Master eta Doktorego Eskolan eman beharko dute izena. MDe-k onartutako zerrenda argitaratuko du eta hortik aurrera jarraitu beharreko aginduak eman-go zaizkie izen ematea osatzeko.
 - d) Ikasleek Master eta doktorego eskolan eman beharko dute izena. MDE-k onartutako zerrenda argitaratuko du eta hortik aurrera jarraitu beharreko aginduak eman-go zaizkie izen ematea osatzeko.

275. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoen arabera:**
- a) Ebaluazio berezia eskatzeko hamabost eguneko epea izango dute ikasleek. Eskariak egiteko azken eguna hilaren bosta izango da.
 - b) Ebaluazio berezia eskatzeko 15 eguneko epea izango dute ikasleek. Eskariak egiteko azken eguna hilaren bosta izango da.
 - c) Ebaluazio berezia eskatzeko 15 eguneko epea izango dute ikasleek. Eskariak egiteko azken eguna hilaren 5a izango da.
 - d) Ebaluazio berezia eskatzeko hamabost eguneko epea izango dute ikasleek. Eskariak egiteko azken eguna hilaren 5a izango da.
276. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoen arabera:**
- a) Ebaluazio berezirako eskaria jaso eta hogeita bederatzigarren artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla baieztatu ondoren, epaimahai bereziek, 3 kidez osatuek, onartu egingo dituzte ondoko baldintzak betetzen dituzten eskari guztiak.
 - b) Ebaluazio berezirako eskaria jaso eta 29. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla baieztatu ondoren, epaimahai bereziek, hiru kidez osatuek, onartu egingo dituzte ondoko baldintzak betetzen dituzten eskari guztiak.
 - c) Ebaluazio berezirako eskaria jaso eta 29. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla baieztatu ondoren, epaimahai bereziek, 3 kidez osatuek, onartu egingo dituzte ondoko baldintzak betetzen dituzten eskari guztiak.
 - d) Ebaluazio berezirako eskaria jaso eta hogeita bederatzigarren artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla baieztatu ondoren, epaimahai bereziek, hiru kidez osatuek, onartu egingo dituzte ondoko baldintzak betetzen dituzten eskari guztiak.
277. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoen arabera:**
- a) Eraikin nagusiko -1 solairuan dago kokatua Informatika Aplikatuko laborategia.
 - b) Eraikin nagusiko -1. solairuan dago kokatua Informatika Aplikatuko laborategia.
 - c) Eraikin nagusiko -1 solairuan dago kokatua Informatika Aplikatuko Laborategia.
 - d) Eraikin nagusiko -1. solairuan dago kokatua Informatika Aplikatuko Laborategia.

278. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoen arabera:**

a) Honako hauek dira Zerbitzuaren eginkizun nagusiak:

- i. administrazio-agiriak eta bestelako idatziak itzultzea, eta ekitaldi ofizial batzuetan interprete-lanak egitea.
- ii. administrazioaren eta zerbitzuen euskalduntze prozesua bideratzea, erabilera-planak bultzatuz eta askapenak kudeatuz.
- iii. hizkuntza-prestakuntza: euskarazko hobekuntza-ikastaroak antolatzea.
- iv. unibertsitateko testugintzaren normalizazioan lan egitea (batez ere, testugintzaren inguruko lerro estrategikoak gauzatzen laguntzea eta euskal testuetako euskararen kalitatea zaintzea).

b) Honako hauek dira Zerbitzuaren eginkizun nagusiak:

- i. Administrazio-agiriak eta bestelako idatziak itzultzea, eta ekitaldi ofizial batzuetan interprete-lanak egitea.
- ii. Administrazioaren eta zerbitzuen euskalduntze prozesua bideratzea, erabilera-planak bultzatuz eta askapenak kudeatuz.
- iii. Hizkuntza-prestakuntza: euskarazko hobekuntza-ikastaroak antolatzea.
- iv. Unibertsitateko testugintzaren normalizazioan lan egitea (batez ere, testugintzaren inguruko lerro estrategikoak gauzatzen laguntzea eta euskal testuetako euskararen kalitatea zaintzea).

c) Honako hauek dira Zerbitzuaren eginkizun nagusiak:

- i. Administrazio-agiriak eta bestelako idatziak itzultzea, eta ekitaldi ofizial batzuetan interprete-lanak egitea
- ii. Administrazioaren eta zerbitzuen euskalduntze prozesua bideratzea, erabilera-planak bultzatuz eta askapenak kudeatuz
- iii. Hizkuntza-prestakuntza: euskarazko hobekuntza-ikastaroak antolatzea
- iv. Unibertsitateko testugintzaren normalizazioan lan egitea (batez ere, testugintzaren inguruko lerro estrategikoak gauzatzen laguntzea eta euskal testuetako euskararen kalitatea zaintzea)

d) Honako hauek dira Zerbitzuaren eginkizun nagusiak:

- i. administrazio-agiriak eta bestelako idatziak itzultzea, eta ekitaldi ofizial batzuetan interprete-lanak egitea
- ii. administrazioaren eta zerbitzuen euskalduntze prozesua bideratzea, erabilera-planak bultzatuz eta askapenak kudeatuz
- iii. hizkuntza-prestakuntza: euskarazko hobekuntza-ikastaroak antolatzea
- iv. unibertsitateko testugintzaren normalizazioan lan egitea (batez ere, testugintzaren inguruko lerro estrategikoak gauzatzen laguntzea eta euskal testuetako euskararen kalitatea zaintzea)

279. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konben-
tzio estilistikoaren arabera:**

- a) Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak unibertsitateko ikasketa ofizialak antola-
tzeko era ezarri zuen; Gradu Amaierako Lanari dagokionez (GRAL), honako hau dio
III. ataleko 12. artikuluan:
— «punto 3: Estas enseñanzas concluirán con la elaboración y defensa de un trabajo
de fin de Grado».
- b) Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak unibertsitateko ikasketa ofizialak antola-
tzeko era ezarri zuen; Gradu Amaierako Lanari dagokionez (GRAL), honako hau dio
III. ataleko hamabigarren artikuluan:
— «punto 3: Estas enseñanzas concluirán con la elaboración y defensa de un trabajo
de fin de Grado».
- c) Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak unibertsitateko ikasketa ofizialak antola-
tzeko era ezarri zuen; Gradu Amaierako Lanari dagokionez (GRAL), honako hau dio
III. ataleko 12. artikuluan:
— «3. puntua: Irakaskuntza horiek gradu amaierako lan bat eginez eta defendatuz
amaituko dira».
- d) Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak unibertsitateko ikasketa ofizialak antola-
tzeko era ezarri zuen; Gradu Amaierako Lanari dagokionez (GRAL), honako hau dio
III. ataleko hamabigarren artikuluan:
— «3. puntua: Irakaskuntza horiek gradu amaierako lan bat eginez eta defendatuz
amaituko dira».

280. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konben-
tzio estilistikoaren arabera:**

- a) Hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko deialdia otsailaren hamabian argitaratu da. Es-
kaerak egiteko epea otsailaren 13tik 27ra izango da, biak barne.
- b) Hizkuntz-eskakizunak egiaztatzeko deialdia otsailaren 12an argitaratu da. Eskaerak
egiteko epea otsailaren 13tik 27ra izango da, biak barne.
- c) Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia otsailaren 12an argitaratu da. Eskae-
rak egiteko epea otsailaren 13tik 27ra izango da, biak barne.
- d) Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia otsailaren hamabian argitaratu da.
Eskaerak egiteko epea otsailaren 13tik 27ra izango da, biak barne.

281. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konben-
tzio estilistikoaren arabera:**

- a) Ikasmaterial honen helburu nagusia honako hau da: Natura Zientzien irakaskuntza-
ikaskuntza prozesua aztertuz sekuentzia didaktikoak diseinatzeko gaitasuna garatzea.
- b) Ikasmaterial honen helburu nagusia honako hau da: natura zientzien irakaskuntza-
ikaskuntza prozesua aztertuz sekuentzia didaktikoak diseinatzeko gaitasuna gara-
tzea.
- c) Ikasmaterial honen helburu nagusia honako hau da: natur-zientzien irakaskuntza-
ikaskuntza prozesua aztertuz sekuentzia didaktikoak diseinatzeko gaitasuna gara-
tzea.
- d) Ikasmaterial honen helburu nagusia honako hau da: Natur-Zientzien irakaskuntza-
ikaskuntza prozesua aztertuz sekuentzia didaktikoak diseinatzeko gaitasuna garatzea.

282. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoen arabera:**

- a) Campuseko batzarra berezko kideek eta kide hautatuek osatzen dute. Hauek dira batzarreko berezko kideak: campuseko errektoreordea, campuseko gerenteordea, campuseko idazkaria, campuseko errektoreordetzaren zuzendaritza-taldeko zuzendari bat, campusean kokatutako ikastegietako dekanok edo zuzendariak eta ikastegi-ataletako dekanorde koordinatzaileak.
- b) Campuseko Batzarra berezko kideek eta kide hautatuek osatzen dute. Hauek dira batzarreko berezko kideak: campuseko errektoreordea, campuseko gerenteordea, campuseko idazkaria, campuseko errektoreordetzaren zuzendaritza-taldeko zuzendari bat, campusean kokatutako ikastegietako dekanok edo zuzendariak eta ikastegi-ataletako dekanorde koordinatzaileak.
- c) Campuseko Batzarra berezko kideek eta kide hautatuek osatzen dute. Hauek dira batzarreko berezko kideak: campuseko errektoreordea, campuseko gerenteordea, campuseko idazkaria, campuseko errektoreordetzaren zuzendaritza-taldeko zuzendari bat, campusean kokatutako ikastegien dekanok edo zuzendariak eta ikastegi-atalen dekanorde koordinatzaileak.
- d) Campuseko batzarra berezko kideek eta kide hautatuek osatzen dute. Hauek dira batzarreko berezko kideak: campuseko errektoreordea, campuseko gerenteordea, campuseko idazkaria, campuseko errektoreordetzaren zuzendaritza-taldeko zuzendari bat, campusean kokatutako ikastegien dekanok edo zuzendariak eta ikastegi-atalen dekanorde koordinatzaileak.

283. **Hautatu ondorengo esaldien artean zuzena, UPV/EHUko itzulpen ataleko konbentzio estilistikoen arabera:**

- a) Arkitektura sailak, ikasturte bakoitzaren hasierarako, ikasturte horretarako GRALen zuzendarien zerrenda zehaztuko du zerrendako zuzendariak ikastegiari atxikita dauden eta graduan eskolak ematen dituzten sail horretako irakasleen artetik aukeratuta.
- b) Arkitektura Sailak, ikasturte bakoitzaren hasierarako, ikasturte horretarako GRALen zuzendarien zerrenda zehaztuko du zerrendako zuzendariak ikastegira atxikita dauden eta graduan eskolak ematen dituzten sail horretako irakasleen artetik aukeratuta.
- c) Arkitektura sailak, ikasturte bakoitzaren hasierarako, ikasturte horretarako GRALen zuzendarien zerrenda zehaztuko du zerrendako zuzendariak ikastegira atxikita dauden eta graduan eskolak ematen dituzten sail horretako irakasleen artetik aukeratuta.
- d) Arkitektura Sailak, ikasturte bakoitzaren hasierarako, ikasturte horretarako GRALen zuzendarien zerrenda zehaztuko du zerrendako zuzendariak ikastegiari atxikita dauden eta graduan eskolak ematen dituzten sail horretako irakasleen artetik aukeratuta.

284. **Zer da elementu eramangarri bat OLI tresnetan?**

- a) Itzulpen-memoriara bidaltzeko itzulpen-unitate bat.
- b) Itzulpen-memoria batean baino gehiagotan gorde nahi dugun elementu bat.
- c) Glosariora eramateko hitz edo hitz-multzo bat.
- d) Jatorrizko testutik xede testura bere horretan kopiatu nahi den elementu bat.

285. **EHU Tipografia korporatiboa erabiltzeko gomendioei jarraiki, zein kasutan erabiliko da EHU Sans tipografia?**
- a) EHUren edozein dokumentu idatzitan.
 - b) Euskarazko testuetan.
 - c) Gaztelaniazko testuetan.
 - d) Gaztelaniazko eta beste hizkuntza batzuetako testuetan.
286. **EHU Tipografia korporatiboa erabiltzeko gomendioei jarraiki, zein kasutan erabiliko da EHU Serif tipografia?**
- a) EHUren edozein dokumentu idatzitan.
 - b) Euskarazko testuetan.
 - c) Gaztelaniazko testuetan.
 - d) Gaztelaniazko eta beste hizkuntza batzuetako testuetan.
287. **Dokumentu bat itzuli behar badugu euskaratik gaztelaniara eta esku artean dugun itzulpen-memoria gaztelaniatik euskararako memoria bada, zer egin dezakegu? Hautatu lau aukeretatik egokiena iruditzen zaizuna.**
- a) Itzulpen-memoriak berdin funtzionatuko du norabide horretan ere eta lagungarria izango zaigu itzultzeko.
 - b) Itzulpen-memoriak ez digu proposamenik eskeiniko eta hutsetik itzuli beharko dugu, memoriaren laguntzarik gabe.
 - c) Itzulpen-memoriak ez digu proposamenik eskeiniko eta esku artean dugun OLI tresna baliatuta memoria alderantzikatuko dugu, itzulpen-memoria kontrako norabidean erabili ahal izateko.
 - d) Itzulpen-memoriak ez digu proposamenik eskeiniko eta itzulpen-memorian dauden unitateak Excel orri batean itsatsita hizkuntzen zutabeak ordenaz aldatuko ditugu, eta hortik gero berriz itzulpen-memoria baten forma emango diogu, OLI tresnan erabili ahal izateko.
288. **OLI tresna batekin lanean ari garenean, zer esan nahi du zerrenda beltz batek?**
- a) Itzuli gabe utzi behar diren itzulpen-unitateak biltzen dituen zerrenda bat da. Halako unitaterik balego, jatorrizkoan bezala utzi beharko ditugu itzulpenean.
 - b) Itzuli gabe utzi behar diren hitzak biltzen dituen zerrenda bat da. Halako hitzik balego, jatorrizkoan bezala utzi beharko ditugu itzulpenean.
 - c) Erabili behar ez diren hitz edo terminoen zerrenda da, gure itzulpenean halakorik agertu behar ez dutenena.
 - d) Testuan nabarmenduta agertu behar duten hitzak biltzen dituen zerrenda da.
289. **Zer motatako informazioa gordetzen dute atributuek OLI tresna batean?**
- a) Jatorrizko itzulpen-unitatean eta xede itzulpen-unitatean ageri diren esaldiak.
 - b) Xede itzulpen unitatea eta horri buruzko metadatuak (sortu zen data, sortu zuenaren izena, bezeroaren izena, itzulpen-proiektuari buruzko informazioa, eta abar).
 - c) Itzulpen unitate bati buruzko metadatuak (sortu zen data, sortu zuenaren izena, bezeroaren izena, itzulpen-proiektuari buruzko informazioa, eta abar).
 - d) Itzulpen-unitateko testuak eta itzulpen-unitate horri buruzko metadatuak (sortu zen data, sortu zuenaren izena, bezeroaren izena, itzulpen-proiektuari buruzko informazioa, eta abar).

290. **Jarraian aipatzen diren zein urrats ematen da kalitate-kontrolari dagokion fasean OLI tresna bat erabiltzen dugunean?**
- Zuzentasun ortografikoa egiaztatzea.
 - Zuzentasun ortografikoa eta gramatikala egiaztatzea.
 - Egokitasun terminologikoa egiaztatzea.
 - Zuzentasun ortografikoa, tipografikoa eta gramatikala egiaztatzea, baita egokitasun terminologikoa egiaztatzea ere.
291. **Zeri esaten zaio dokumentua garbitzea Wordfast Classic erabiltzen dugunean?**
- Kalitate kontrola pasatzeari.
 - Zuzentasun ortografiko eta gramatikala egiaztatzeari.
 - Dokumentu elebiduna daukan fitxategitik itzulpen soila daukan dokumentua sortzeari.
 - Etiketak ezabatzeari.
292. **Itzulpen-memorien kudeaketari dagokionez, hainbat funtzio betetzeko aukera dugu OLI tresnen bitartez. Jarraian aipatzen diren lau aukeretatik bat ezin da egin itzulpen-memoria bat bakarrik erabilita. Zein da?**
- Jatorrizko eta xede hizkuntza alderantzikatuta beste memoria bat sortu.
 - Errepikatuta dauden itzulpen-memoriak identifikatu eta ezabatu.
 - Xede testua sortu, jatorrizkoak zuen formatu berean.
 - Itzulpen memoria TMX formatura esportatu.
293. **Itzulpen-memoriatik eratorritako proposamenak eskaintzean, OLI tresnek penalizazioak ezar diezazkiekete itzulpen-unitateei, eta horien bitartez antzekotasun maila jaitsi. Ondorengo hauetatik, zein penalizazio ez da aplikatzen?**
- Zenbaki edo zifra ezberdinak agertzea itzulpen-memorian gordeta dagoen itzulpen-unitatean eta uneko itzulpen-unitatean.
 - Letra-motaren estiloa (beltzez, etzanez, azpimarraz) ezberdina izatea itzulpen-memorian gordeta dagoen itzulpen-unitatean eta uneko itzulpen-unitatean.
 - Kontsultarako eta ez editatzeko erabiltzen ari garen itzulpen-memoria batetik datorenean itzulpen-unitate proposamen bat.
 - Uneko itzulpen-unitatea itzulpen-memoria nagusitik datorrenean.
294. **Merkatuan testuak lerrokatze hainbat tresna dauzkagu. Hauetatik zeintzuk dira lerrokatze balia ditzakegun programak?**
- Okapi Olifant eta LF Aligner.
 - LF Aligner eta PlusTools.
 - Anaphraseus eta PlusTools.
 - OmegaT eta LF Aligner.
295. **Aukeratu ondorengo esaldi hauetatik zuzen dagoena:**
- Esta casa es bonita, pero prefiero aquélla.
 - Todavía no sabemos cuántos serán, 4 o 5.
 - No estaba segura de si el resultado del problema era 79 o 80.
 - Es una película solo para adultos.

296. **Aukeratu ondorengo esaldi hauetatik zuzen dagoena:**
- a) Mi padre es exteniente coronel del Ejército.
 - b) Los años de la postguerra fueron muy duros.
 - c) La Policía llegó rápidamente al lugar del siniestro.
 - d) Han puesto en marcha una campaña pro-Obama.
297. **Euskarazko esaldi bat ageri da jarraian eta behean esaldi horren lau itzulpen posible. Hauta ezazu egokiena iruditzen zaizuna. Euskarazko esaldia: *Eusko Jaurlaritzak lan-kidetza akordioa sinatu du merkataritzako hamar katerekin, euskarari buruzko konpromisoekin.***
- a) El Gobierno Vasco ha firmado un convenio de colaboración con diez cadenas comerciales, con compromisos respecto al euskera.
 - b) El Gobierno Vasco firma con diez cadenas comerciales un acuerdo de cooperación sobre compromisos respecto al euskera.
 - c) El Gobierno Vasco ha firmado un acuerdo de colaboración con diez cadenas comerciales con un compromiso sobre el euskera.
 - d) El Gobierno Vasco ha firmado un acuerdo de colaboración con diez cadenas comerciales, por el que estas adquieren algunos compromisos respecto al euskera.
298. **Euskarazko esaldi bat ageri da jarraian eta behean esaldi horren lau itzulpen posible. Hauta ezazu egokiena iruditzen zaizuna. Euskarazko esaldia: *Bi sagardogileek handik eta hemendik jasotzen dituzte sagarrak. Kilo asko eta asko behar dira eskariari aurre egiteko.***
- a) Los dos sidreros recogen manzanas de diversos sitios, Necesitan muchos kilos para hacer frente a la demanda.
 - b) Tanto uno como otro reciben las manzanas de aquí y de allí. Se necesitan muchos kilos de manzana para atender a la demanda.
 - c) Las dos sidrerías cosechan la manzana en varios sitios, ya que se necesitan muchos kilos para cumplir con la demanda.
 - d) Ambos sidreros recogen las manzanas de diferentes sitios. Se necesitan muchos kilos para satisfacer la demanda.
299. **Euskarazko esaldi bat ageri da jarraian eta behean esaldi horren lau itzulpen posible. Hauta ezazu egokiena iruditzen zaizuna. Euskarazko esaldia: *Aurten sagar urtea izanik, eta udaberria eta uda oso onak izan direnez, sagarrondoak fruituz beteta daude.***
- a) Como es el año de la manzana, y la primavera y el verano han sido muy buenos, los manzanos están llenos de fruta.
 - b) Al ser un buen año para la manzana y gracias a que la última primavera y verano han sido buenos, los manzanos están llenos de frutos.
 - c) Los manzanos están repletos de frutos en este año de manzana, ya que la primavera y el verano han sido muy buenos.
 - d) Como la primavera y el verano han sido tan buenos, ha resultado ser un excelente año para la manzana y los manzanos están llenos de frutos.

300. **Euskarazko esaldi bat ageri da jarraian eta behean esaldi horren lau itzulpen posible. Hauta ezazu egokiena iruditzen zaizuna. Euskarazko esaldia: *Lehen, etxeko trapuekin egindako mozorroak eramaten zituzten; orain, dendan erositako mozorro ponpoxoak janzten dituzte eskean ateratzen direnek.***
- a) Antes los que salían a pedir lo hacían disfrazados con los trapos de casa; ahora los disfraces son elaborados, comprados en tiendas.
 - b) Ahora, en lugar de disfraces hechos con harapos que había por casa, quienes salen a pedir lucen elegantes disfraces comprados en alguna tienda.
 - c) Antes, se llevaban disfraces confeccionados con trapos de casa; ahora, los que salen utilizan disfraces elegantes comprados en tiendas.
 - d) Antiguamente, los disfraces se hacían con trapos de casa, mientras que ahora, los que salen a pedir visten con trajes elaborados que compran en las tiendas.
301. **Euskarazko esaldi bat ageri da jarraian. Esan lau aukeretatik zein den egokiena.**
- a) Jaurlaritzako hezkuntza sailburuak argi utzi du, hezkuntza sistemak bere kabuz ezin du bermatu ikasle guztien elebitasuna.
 - b) Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuak argi utzi du: hezkuntza sistemak bere kabuz ezin du bermatu ikasle guztien elebitasuna.
 - c) Jaurlaritzako hezkuntza sailburuak argi utzi du, hezkuntza sistemak bere kabuz ezin du bermatu ikasle guztien elebitasuna.
 - d) Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuak argi utzi du, hezkuntza sistemak bere kabuz ezin du bermatu ikasle guztien elebitasuna.
